

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

16347 9/2020 Legea, abenduaren 16koa, Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legea aldatzen duena, kostuei dagokienez isurketa-murrizketak modu eraginkorrean areagotzeko.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauak, zeinaren bidez Europako Erkidegoan berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketarako erregimena ezartzen eta Kontseiluaren 96/61/EE Zuzentzara aldatzen baita, Europar Batasuneko isurketa-erregimena ezarri zuen. Haren xedea zen gas horien isurketak murriztu daitezkeen sustatzea, kostuari dagokionez modu eraginkorrean eta ekonomikoki modu efizientean murriztea ere. Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legeak ekarri zuen aipaturiko zuzentzara hori Espainiako ordenamendu juridikora.

2014ko urriaren 24ko Kontseilu Europarrak konpromiso bat hartu zuen: Europar Batasuneko berotegi-efektuko gasen isurketa globalak gutxienez % 40 murriztea 2030erako, 1990eko balioekin alderatuta. Horretarako, ekonomiaren sektore guztiek lagundu behar dute isurketak murrizten, eta helburua ahalik eta modurik eraginkorrean erdietsi behar da, kostuei dagokienez. Horretaz gainera, baieztatu zuen Europar Batasunaren isurketa-erregimen berritua eta behar bezala funtzionatu duena dela helburu hori lortzeko Europako erreminta nagusia, bai eta merkatua egonkortzeko tresna ere. Europar Batasunaren isurketa-erregimen salerosketa-erregimenak barnean hartutako sektoreei dagokienez, 2030erako ezarritako helburua % 43ko murrizketa lortzea izan zen, 2005eko mailak erreferentzia gisa harturik.

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren pean, Parisko Akordioa onetsi zen, 2015eko abenduaren 12an, eta 2016ko azaroaren 4an jarri zen indarrean denentzat. Espainiak 2016ko apirilaren 22an sinatu zuen akordio hori, eta berretsi, berriz, 2016ko abenduaren 23an. 2017ko otsailaren 2an argitaratu zen *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, eta 2017ko otsailaren 11n jarri zen indarrean. Parisko Akordioaren helburu nagusia da aiseki eustea planetaren batez besteko tenperaturaren igoerari 2 °C-en azpitik, industriaurreko mailekin alderatuz, eta ahaleginak egitea igoera-maila hori ez dadin izan aipaturiko erreferentzia-maila horiek baino 1,5 °C handiagoa. Europar Batasunak, 2015eko martxoaren 6an, bere estatuen eta bere ekarpen zehatza bidali zuen Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Idazkaritzara.

2018an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentzara onetsi zuen, zeinaren bidez 2003/87/EE Zuzentzara aldatzen baita, kostuei dagokienez isurketen murrizketak modu eraginkorrean areagotzeko eta teknologia hipokarbonikoetan inbertsioak errazteko, eta, orobat, (EB) 2015/1814 Erabakia ere onetsi zuen, zeina 2018ko apirilaren 8an jarri baitzen indarrean.

Zuzentarau horixe da Europar Batasunaren legegintza-esparrua Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren 2021-2030eko salerosketa-aldirako (IV. fasea), bai eta Europar Batasunaren tresna nagusietako bat ere isurketak murrizteko 2030era begirako helburuak lortzeko; zuzentaraua bat dator Europako Kontseiluak 2014an hartutako konpromisoekin, eta Europar Batasunak Parisko Akordioari egindako ekarpenaren barruan dago. Helburu horiek lortzeko, 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentarauak zenbait neurri txertatzen ditu Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena indartzeko. Horien artean, hauek dira nabarmentzekoak: murrizketa linealaren faktorea areagotzea, zeina III. fasean (2013-2020ko aldian) % 1,74 baitzen eta IV. fasean % 2,2 izango baita, 2021etik aurrera; enkantea izatea isurketa-eskubideak esleitzeko metodo nagusia; doako esleipenaren jarraipena egitea karbono-ihesei buruzko xedapenak hobetuz, ihes-arriskuan dauden sektoreetara gehiago bideratuta; eta zenbait funts sortzea karbono apaleko ekonomia bateranzko trantsizioa finantzatzeko. IV. fasean, bi esleipen-alditan banatzen da 2021-2030eko aldirako salerosketa-aldia, eskubideen doako esleipenari eta instalazio finkoei dagokionez: 2021-2025 urteetako eta 2026-2030 urteetako.

2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentarauarekin batera, Europar Batasunak zenbait egintza eskuordetu eta betearazpen-egintza onetsi ditu Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren efikazia eta sendotasuna bermatzeko 2021-2030eko aldian. Hori horrela, isurketen jarraipenari eta jakinarazpenari dagokionez eta akreditazioari eta egiaztapenari dagokionez (horiek baitira Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren oinarri nagusiak), honako bi lege-testu hauek onetsi dira: alde batetik, Batzordearen (EB) 2018/2066 Betearazpen Erregelamendua, 2018ko abenduaren 19koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentaraua aplikatuz berotegi-efektuko gasen isurketen jarraipena egiteari eta haiek jakinarazteari buruzkoa, Batzordearen 601/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duena, eta, bestetik, Batzordearen (EB) 2018/2067 Betearazpen Erregelamendua, 2018ko abenduaren 19koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentarauaren arabera datuak egiaztatzeari eta egiaztatzaileak akreditazteari buruzkoa. Europar Batasuneko Erregistroaren erregulazioan ere egin dira aldaketak, Batzordearen 2018ko otsailaren 12ko (EB) 2018/208 Erregelamenduen bidez, zeinak aldatu egiten baitu Europar Batasuneko Erregistroa ezartzen duen 389/2013 (EB) Erregelamendua.

Aire-sektoreari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko abenduaren 13ko (EB) 2017/2392 Erregelamendua onetsi da, zeinak 2003/87/EE Zuzentaraua aldatzen baitu, abiazio-jardueren aplikazio-eremuaren egungo mugei eusteko eta 2021etik aurrera mundu zabalerako merkatu-neurri baten aplikazioa prestatzeko. Erregelamendu horrek 2023ra arte luzatzen du Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenak abiazioan duen irismen murriztuaren indarraldia.

Nabarmentzekoa da, orobat, Batzordearen (EB) 2019/708 Erabaki Eskuordetua, 2019ko otsailaren 15ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentaraua osatzen duena 2021-2030eko aldian karbono-ihesak izateko arriskuan daudela irizitako sektoreak eta azpisektoreak zehazteari dagokionez.

2021etik 2030era bitartean isurketa-eskubideen doako esleipen iragankorra egiteko moduari buruzko araei dagokionez, Batzordearen 2018ko abenduaren 19ko (EB) 2019/331 Erregelamendu eskuordetua onetsi da. Haren bidez, isurketa-eskubideen doako esleipena harmonizatzeko Europar Batasunaren arau iragankorrak zehazten dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentarauaren 10 bis artikulua zehazten duenaren arabera. Horretaz gainera, Batzordearen (EB) 2019/1842 Betearazpen Erregelamendua ere onetsi da, 2019ko urriaren 31koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen, jardueramailaren aldaketen ondorioz isurketa-eskubideen doako esleipena doitzeko xedapen gehigarriei dagokionez. Europar Batasunaren eremuan, negoziazio-fasean daude, orobat, doako esleipenerako erreferentzia-parametroak zehazteko arauak.

Zenbait arrazoik justifikatzen dute martxoaren 9ko 1/2005 Legea aldatzea: 2021eko urtarrilaren 1ean hasiko den salerosketa-aldi berriari dagokionez 2018ko martxoaren 14ko

(EB) 2018/410 Zuzentarauak ekarri dituen eta Europar Batasunean isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean eragiten duten aldaketak Espainiako ordenamendu juridikoan sartzeko beharrak; Europar Batasunean auzi honekin loturik onetsi diren gainerako arauak ere txertatu beharrak; eta Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenari Espainian behar adinako koherentzia eta eraginkortasuna eman beharrak, kontuan izanik errotik aldatu dela azken bi urteetan.

Aurreko aldaketetan gertatu zen bezala, lege honetan ez dira jasotzen Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren IV. fasearen konfigurazioan funtsezkoak diren gai batzuk; izan ere, Europar Batasunean kudeatu beharrekoak dira auziak. Hori horrela, ez dute transposizioerik behar edo zuzenean Europar Batasuneko araudira jotzen dira. Horrek ez du eragozten, ordea, legeak Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren IV. fasearen ikuspegi osoa eta koherentia biltzea.

2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentarauak adierazten duenez, Europar Batasuneko estatuak 2019ko urriaren 9an ipiniko dituzte indarrean, beranduenik ere, hura betetzeko beharrezko diren lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak.

Epe horretatik kanpo geratzen da 2003/87/EE Zuzentarauaren 1. artikulua 14. apartatuko f) letra, zeinak aldatu egiten baitu 10 bis artikulua 6. apartatua. Apartatu horrek 2018ko abenduaren 31n behar zuen indarrean beranduenez, eta 2021-2030eko aldirian berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena aplikatzearekin zerikusia duten alderdiak garatzeko urtarrilaren 25eko 18/2019 Errege Dekretuaren azken xedapenetako hirugarrenaren bidez sartu zen Espainiako ordenamendu juridikoan.

Martxoaren 9ko 1/2005 Legearen aldaketa horrekin batera, beste arau-aldaketa batzuk egin dira erregelamenduan, bermatzeko IV. fasean behar bezala ezartzen dela Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena. Dagoeneko onetsi diren arauen artean, aipatzekoak dira, batetik, urtarrilaren 25eko 18/2019 Errege Dekretu hura eta, bestetik, apirilaren 26ko 317/2019 Errege Dekretua, 2021-2025eko aldirian emisio-eskubideak salerosteko erregimenean parte-hartzearen pareko arintze-neurria zehazten duena eta gas gutxi isurtzen instalazioak berotegi-efektuko gasen emisio-eskubideak salerosteko erregimenetik baztertzearen zenbait alderdi arautzen dituena. Era berean, izapidetze-fasean dago 2021-2030eko aldirian berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen doako esleipena doitzeari buruzko alderdiak garatzen dituen errege-dekretuaren proiektua, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikora ekarriko baitira 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentarauaren 1. artikulua 14. apartatuko m) eta n) letrak, bai eta 17. apartatuaren azken tartekia ere.

Lege hau, beraz, transposizio partziala da, eta artikulua bakar bat, xedapen iragankor bat eta hiru azken xedapen ditu.

Lege-aurreproiektua idaztean, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentzia hartu da kontuan, Estatuak eta autonomia-erkidegoek klima-aldaketaren arloan dituzten eskumenen gainekoa, eta, bereziki, 2019ko ekainaren 20ko 87/2019 epaia.

II

Martxoaren 9ko 1/2005 Legearen I. kapituluaren egindako aldaketen artean, besteak beste, arauaren xedea eguneratzen da, 2018ko martxoaren 14ko 2018/410 Zuzentaruaren ezarritakoa oinarri harturik, eta definizio berriak jasotzen dira (nabarmenena, esleipenaren bi aldiertako bakoitzeko sartu berriaren definizioa).

Halaber, 2 bis artikulua gehitzen da, Estatuak Administrazio Orokorraren eta autonomia-erkidegoen arteko kooperazio- eta lankidetzaren harremanetan sakontzeko klima-aldaketarekin loturiko auzien gainean, barnean harturik Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenetik kanpo dauden instalazio txikiak hartu diren eta 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 21. artikuluko txostenean aipatzen diren neurri baliokideak. Formulazio malguagoz egokitzen da erregulazioa Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordearen kasuan, zeina organo erabakigarria baita

Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazioan eta lankidetzan.

Azkenik, apartatu bat gaineratzen da 3 bis artikuluan, gizarte-elkarrizketako mahaiei buruzkoa. Haren arabera, sindikatuak eta enpresaburuen elkarteek parte hartuko dute klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta trantsizio ekologikorako politikekin lotutako araudiak lehiakortasunean, enpleguan eta gizarte- eta lurralde-kohesioan zer eragin duen ikusteko jarraipen-lanean.

III

II. kapituluak, legearen aplikazio-eremuaren mendeko instalazioek berotegi-efektuko gasak isurtzeko izan beharreko baimenen erregimena ezartzen da. Instalazioa zer autonomia-erkidegotan dagoen, hango organo eskudunari dagokio baimen horiek ematea. Nabarmenezkoa da ezabatu egiten dela autonomia-erkidegoko organoak berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena bost urtean behin berrikusteko betebeharra.

IV

Sistematika eta azaltzeko argitasuna arrazoi gisa harturik, izaera orokorra baitu, III. kapituluak arautzen ditu orain arte legearen V. kapituluak jasotzen ziren isurketa-eskubideak.

Berrikuntza gisa, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera emaniko isurketa-eskubideek balio mugagabea izango dute. Finantza-tresnatzat hartzen dira isurketa-eskubideak eta horietatik eratorritakoak, hala ezartzen baitu Espainiako eta Europar Batasuneko araudi aplikagarriak; esate baterako, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren I. eranskinaren C atalak (zuzentarau hori finantza-tresnen merkatuei buruzkoa da, eta 2002/92/EE Zuzentaraua eta 2011/61/EB Zuzentaraua aldatzen ditu).

Era berean, isurketa-eskubideen salerosketa-aldien iraupenak esleipen-aldi bat baino gehiago izan ahalko du, doako esleipenari dagokionez. Hartara, bi alditan banatzen da Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena instalazio finkoetarako: 2021-2025 urteetakoa eta 2026-2030 urteetakoa.

V

IV. kapituluak isurketa-eskubideen esleipena arautzen du, eta bi ataletan banatuta dago. Lehenbizikoan, printzipio orokorren arabera, enkantea da, orain arte bezala, oinarrizko esleipen-metodoa, Europar Batasuneko araudiak dioenarekin bat, eta hark zehaztuko du, besteak beste, enkantean jarri beharreko eskubideen ehunekoa. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak antolatuko ditu berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen enkanteak, eta hark zainduko du enkante horiek Europar Batasunaren araudiaren arabera –eta, halakorik denean, hura garatzeko araudiaren arabera– egiten direla, organo horri esleitzen baitzaizkio zeregin horiek. Beste berritasun batzuen artean, ezartzen da estatu-idazkaritza horren titularra izango dela enkantegilea. Era berean, adierazten da ezen, neurri nazional osagarriak hartzearen ondorioz elektrizitatea sortzeko kapazitatea eteten bada, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak ezeztatu ahal izango duela enkantean jarri beharreko isurketa-eskubideen gehieneko kantitate bat, harik eta dena delako instalazioaren kapazitatea eten aurreko bost urteetan instalazio horretan egiaztatutako isurketen batezbestekora iritsi arte.

Kapitulu honen bigarren atalean, eguneratu egiten dira Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren IV. faserako instalazioek jaso dezaketen doako esleipen iragankorrari buruzko xedapenak. Eutsi egiten zaio doan esleitutako isurketa-eskubideen kantitateari: Europar Batasuneko arauen arabera zehazturiko kantitatearen ehuneko 100, karbono-ihesak izateko arrisku nabarmena duten sektore edo azpisektoreen kasuan. Honako hauek hartzen dira karbono-ihesak izateko arrisku handia duten sektore edo azpisektoretzat: industria-sektorean Europar Batasunaren isurketa-eskubideen

salerosketa-erregimenaren tankerako betebeharririk ezarri ez duten hirugarren herrialdeetan karbono-isurketak areagotzea eragingo luketenak Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena aplikatzeagatik.

Alabaina, murriztu egingo da doan esleitutako isurketa-eskubideen kantitatea karbono-ihesak izateko arrisku nabarmeneko sektore edo azpisektoreetatik kanpo dauden eta doako esleipena jaso dezaketen instalazioen kasuan. Hori horrela, Europar Batasuneko arau harmonizatuen arabera zehaztutako kopuruaren % 30era murrizten da ehuneko 2021ean, harik eta 2026ra arte. 2026tik aurrera, berriz, urtero kantitate bera murriztuko da ehuneko, eta helburua izango da 2030ean isurketa-eskubiderik doan ez esleitzeko egoerara iristea (hiri-berokuntza albo batera utzita, azken horrek Europar Batasuneko arau harmonizatuen arabera zehaztutako kantitatearen ehuneko 30ari eutsiko baitio 2030era arte).

2021etik aurrera, 2013-2020ko aldian gertatzen zen bezala, ez zaie esleituko doan isurketa-eskubiderik elektrizitate-sorkuntzari, atzipen-instalazioei, garraiorako eroanbideei eta karbono dioxidoa biltegitatzeko guneei.

Halaber, 2013-2020ko aldian bezala, doako esleipen gisa gordeko da isurketa-eskubideen kantitate bat IV. faseko sartu berrientzat. Erreserba hori komuna eta bakarra izango da Batasun osorako, eta Europar Batasunaren araudiak erregulatuko du.

Isurketa-eskubideen doako esleipena eskatzeko prozeduraren berritasun nagusi gisa, nabarmentzekoa da erregelamenduz garatuko direla zenbait alderdi, hala nola eskaerak aurkezteko epea, edukia, formatua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa. Alde horretatik, urtarrilaren 25eko 18/2019 Errege Dekretua onetsi da instalazioei dagokienez, eta dagoeneko aurreratuta dauzka hainbat kontu 2021-2025eko esleipen-aldirako.

VI

V. kapitulu berriak isurketa-eskubideen doako esleipenak doitzeari eta itzultzeari buruzko erregulazioa biltzen du. Kapitulu horren arrazoia da Espainiako ordenamendu juridikora egokitu beharra dagoela 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentarauak sartutako berritasun garrantzitsuenetako bat, eta, horretaz gainera, segurtasun juridiko eta bizkortasun handiagoa behar dela orain artean garaturiko prozeduretan, kontuan izanik haien bolumena ziurrenik nabarmen areagotuko dela Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren IV. fasean, txertaturiko aldaketen ondorioz. Hori horrela, doitu egin behar da instalazio bakoitzari doan esleitutako kantitatea, instalazioaren jarduera-mailaren arabera, jarduera-maila hori bi urteko batezbesteko mugikor batean oinarrituta, baldin eta jarduera-maila hori ehuneko hamabostetik gora igo edo jaitsi bada hasierako esleipen-aldian doako esleipena zehazteko erabilitako jarduera-mailarekin alderatuta. Kontuan izan behar da, Europar Batasunaren erregulazioarekin bat, egiaztatutako jarduera-mailari buruzko txostenean emandako azpi-instalazioetako datuak erabiliz doitzen dela esleipena. Azpi-instalazio baten jarduera-mailaren eta jarduera-maila historikoaren arteko aldea ehuneko hamabost baino handiagoa bada, doitu egingo da instalazio horri dagokion esleipena. Orobat, ezartzen da behar baino doako eskubide gehiago emanaz gero itzuli egin behar direla gehiegizko eskubide horiek. Erregelamendu bidez garatuko dira doikuntzei buruzko alderdiak, itzulketa eragin duten inguruabarrak eta itzulketa arautzen duen prozedura, eta, horretarako guztirako, Europar Batasuneko araudiak ezartzen duenari jarraituko zaio.

VII

VI. kapituluak instalazio finkoetako isurketen eta jarduera-mailen jarraipena eta jakinarazpena egiteko betebeharrak arautzen ditu, bai eta egiaztatzeen datuak eta egiaztatzaileen akreditazioa ere. Eta Europar Batasunak esparru horretan ezarritako berrikuntzak txertatzen ditu. Kapitulu horrek bi atal ditu, eta instalazio finkoei bakarrik eragiten die. Aire-operadoreei horrekin loturik aplikatu beharreko araudia abiazioari buruzko IX. kapituluan dago jasota, azalpenak argiago emate aldera.

Lehenbiziko atalean, isurketen jarraipena egiteko betebeharrak ezartzen dira (autonomia-erkidegoko organo eskudunak onetsitako eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimenean jasotako isurketen jarraipen-planean oinarrituta egiten beharko da); gainera, Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren IV. faserako berritasun gisa, ezartzen da bereizita egin beharko dela jarraipena, instalazio bakoitzak dituen azpi-instalazioetako jarduera-mailak aintzat harturik. Betebehar berri horrek isurketa-eskubideen doako esleipena jasotzen duten instalazioei eragingo die, eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak onetsiko duen jarraipen-plan metodologikoan oinarrituta gauzatu beharko da, halaxe zehazten baitute, batetik, Europar Batasuneko araudiak eta onetsitako erregelamendu-arauek, eta, bestetik, urtarrilaren 25eko 18/2019 Errege Dekretuan jasotako aurreikuspenek berek.

Era berean, Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren aurreko faseetan aurreko urteko isurketei buruzko txosten egiaztatua aurkezteko betebeharrarekin batera, instalazioaren titularrak, urte bakoitzeko otsailaren 28an, aurreko urteko jarduera-mailari buruzko datuen urteko txosten egiaztatu bat aurkeztu beharko du instalazio bakoitzak dituen azpi-instalazioetako jarduera-mailari buruz. Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak aztertuko du txosten hori, Europar Batasuneko araudiaren arabera, eta doako esleipena doitu ahal izango da egokitzat jotzen denean.

Bigarren atalak beste xedapen bat dakar, egiaztapen-jarduerak Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren pean egiten dituzten egiaztatzaileen akreditazioari buruzkoa. Egiaztatzaile horiek Europar Batasunaren araudian ezarritako betekizunen arabera egon beharko dute akreditatuta.

VIII

VII. kapitulua Europar Batasuneko Erregistroaren erregulazioari eta isurketa-eskubideak entregatzeko betebeharrari buruzkoa da. Zehazki, isurketa-eskubideen Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorraren erregulazioa aurkezten da. Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak kudeatuko du erregistro hori, eta Espainiak administratutako instalazio finkoen titularrak eta aire-operadoreek hartzekoen kontu bat ireki beharko dute bulego horretan, isurketa-eskubideak aurreko urtean izandako isurketen kantitate baliokidean entregatzeko betebeharra betetzeko. Isurketa-eskubideak emateari dagokionez, erregelamenduz zehaztuko da zer inguruabarretan proposatzen den doako isurketa-eskubideak ez transferitzea, betiere Europar Batasunaren araudian ezarritakoaren arabera. Era berean, isurketa-eskubideen eskualdaketa eteteko kasu batzuk identifikatzen dira. Azkenik, debekatuta egongo da Europar Batasunaren Tratatu 50. artikulua arabera Kontseilu Europarrari Europar Batasunetik erretiratzeko asmoa jakinarazi dion estatu batek jaulkitako isurketa-eskubideak ematea, hala dagokionean eta Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren ingurumen-osotasuna babesteko beharrezkoa den bitartean.

IX

Zehapen-araubidea VIII. kapitulan arautzen da, eta Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenak eragiten dien subjektu guztiei aplikatzen zaie; beraz, instalazio finkoei eta aire-operadoreei ere bai. Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren IV. faseari eragiten dioten jarraipen- eta jakinarazpen-betebehar berriekin bat etorritik, arau-hauste gehiago sartu dira, hala nola jarraipen-plan metodologikoa eta instalazioaren azpi-instalazioen jarduera-mailari buruzko txosten egiaztatua ez aurkeztea, bai eta neurritik gain transferitutako doako eskubideak itzultzeko agintzen duen ebazpena irmo bihurtzen denetik aurrera haiek itzultzeko betebeharra ez betetzea ere kasu bakoitzean lege honen erregelamendu-garapenean aurreikusitakoaren arabera.

Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenetik kanpo geratzen diren instalazioei dagokienez, arau-hauste oso astuntzat tipifikatzen da arintze-neurria ez betetzea, hau da, ez betetzea instalazio horrek Europar Batasunaren isurketa-eskubideen

salerosketa-erregimenean erregelamendu bidez zehazturiko partaidetzaren baliokidea. Laugarren xedapen gehigarrian egiten dira arintze-neurri horri buruzko aipamenak, eta erregelamendu bidez garatzen da xedapen hori. Aldatu egiten dira, halaber, zehatzeko ahala esleitzeari buruzko artikulua.

X

Azkenik, IX. kapituluak –abiazioari buruzkoa bera– aire-sektoreak Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren pean duen erregulazio espezifikoa jasotzen du, eta aire-operadoreen jarraipen-betebeharrei eta isurketen jakinarazpenei aplikatu beharreko araudia deskribatzen du. Mantendu egiten dira aire-operadoreen doako esleipenari buruzko xedapenak, isurketa-eskubideen erreserba berezia barne. Kapituluak bi aldaketa hauek osatzen dute: alde batetik, martxoaren 9ko 1/2005 Legearen hirugarren xedapen iragankorraren aldaketak (xedapen iragankor horretan, aire-sektorera 2013tik 2023ra bitarteko aire-sektorearen erregimen iragankorra dago), eta, bestetik, legearen I. eranskinean egindako aldaketak, zeinaren bidez Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenetik kanpo uzten baitira, 2030eko abenduaren 31ra arte, urtean 1.000 tona CO₂ baino gutxiago isurtzen dituzten aire-operadore ez-komertzialak, jatorria edo helmuga 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EB Zuzentarauaren bertsio bategina aplikatzeko zaien lurraldeetako aerodromo batean dutenak.

XI

Martxoaren 9ko 1/2005 Legearen xedapen gehigarriari dagokionez, bereziki nabarmentzen da laugarren xedapen gehigarrian eginiko aldaketa. Xedapen horretan, instalazio txikien bazterketa arautzen da, eta Espainiak erabaki du instalazio horiek baztertzeko aukera ematen jarraitzea 2021etik 2025era bitarteko esleipen-aldian, baina birdefinitu egin du neurri baliokidearen gutxieneko edukia, isurketak murrizteko helburu berrietan oinarriturik, eta horretarako onetsi zen 2019ko apirilaren 26ko 317/2019 Errege Dekretua. Kontuan hartu behar da bazterturiko instalazioen isurketak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko (EB) 2018/842 Erregelamenduan isurketak murrizteko ezarritako helburu nazionalaren barruan zenbatzen direla (erregelamendu hori 2021etik 2030era bitartean Europar Batasuneko estatuek berotegi-efektuko gasak isurtzeko dituzten urteko murrizketa lotesleei buruzkoa da, klimaren aldeko jardunean eta Parisko Akordioaren esparruan hartutako konpromisoak betetzen laguntzen duten horiei buruzkoa, eta 525/2013 (EB) Erregelamendua aldatzen du). Hori horrela, nahitaezkoa da bazterturiko instalazioek modu nabarmenean laguntzea Espainiarako ezarritako helburua betetzen. Egiaz hala ote den ebaluatzeko, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak txosten bat egingo du 2023an, isurketa gutxiko instalazioak baztertzeko erregimenaren orain arteko aplikazioari buruz. Txosten hori esku artean izanik, Ministro Kontseiluak, errege-dekretu baten bidez, luzatu ahalko da baztertzeko erregimen hori aplikatzeko aldia 2026tik aurrera.

Era berean, aipatzekoa da zazpigarren xedapen gehigarrian egiten den aldaketa, zeinaren bidez ezartzen baita Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak, Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako eremuko administrazioaren arloko agintaritzak eskuduna den aldetik, luze gabe ipini beharko dituela jakinaren gainean iruzurraren, kapital-zuriketaren eta terrorismoa finantzatzearen kontrako borrokako eta ikerketako agintari eskudunak, baldin eta hautematen badu erregistro horretan kapital-zuriketarekin edo terrorismoa finantzatzearekin loturiko transakzioen bat dagoela. Era berean, Espainiako edo Europako agintari eskudunekin lankidetzan aritu beharko du isurketa-eskubideen merkatuak gainbegiratzearen arloan, baldin eta justifikaturiko arrazoiak baditu susmatzeko informazio pribilegiatua duten eragiketak egiten ari direla merkatu horretan, Europar Batasuneko araudiak ezarritako koordinazio-mekanismoen arabera.

Aldatu egiten dira martxoaren 9ko 1/2005 Legearen lehenengo xedapen iragankorretik hirugarrenera bitartekoak, eta ezabatu egiten dira indarra galdu dutenak.

Lehenengo xedapen iragankorrak 2021eko apirilaren 30era arteko entrega-betebeharrak betetzeko erregimen iragankorra jasotzen du. Hark ezartzen du ezen instalazioen titularrek 2021eko apirilaren 30era arte entregatu ahal izango dituztela abiazioari esleiturikoez bestelako isurketa-eskubideak urteko entrega-betebeharra betetzeko.

Bigarren xedapen iragankorrak bermatzen du Kyotoko Protokoloaren baterako aplikazioko proiektuen («IMU») edo garapen garbiko mekanismoen («IMZ») jarduerak sortutako nazioarteko kredituei dagozkien unitateak, 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 11 ter artikuluaekin bat etorritik, hautatu ahal izango direla baliozko isurketa-eskubideekin baliatzeko eta trukatzeko, Europar Batasuneko araudian ezarritako muga kuantitatibo eta kualitatiboak gainditzen ez dituzten heinean eta hark zehazten duen data arte.

Hirugarren xedapen iragankorrean, abiaziorako 2013-2023 urteetako erregimen iragankorra argitzen da, Europar Batasuneko araudiak txertaturiko aldaketak kontuan hartu izanaren ondorioz. Zehazki, 2017ko abenduaren 13ko (EB) 2017/2392 Erregelamenduaren bidez, luzatu egin zen jatorria edo helmuga hirugarren herrialdeetan duten hegaldiei Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren betebeharrak aplikatzeko egiten zen salbuespenaren indarraldia, harik eta 2023ko abenduaren 31ra arte. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 421/2014 (EB) Erregelamenduak txertatu zuen salbuespen hura (erregelamendu horrek aldatu egiten du 2003/87/EE Zuzentaraua, Europar Batasunaren berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena ezartzen duena nazioarteko akordio bat egin eta 2020ra bitartean munduan nazioarteko abiazio-isurketei merkatu-neurri bakarra aplikatzeko asmoz). 2013-2023 urteetan, Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira hirugarren xedapen iragankorrak berariaz aipatzen dituen ibilbide jakin batzuk, eta ibilbide horien gainean, horrenbestez, aire-operadoreek ez dute betebeharrak izango isurketa-eskubideen jarraipena egiteko, jakinarazpena egiteko eta isurketa-eskubideak entregatzeko. Horrek ez du galarazten Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean bilduriko aire-operadoreek beste betebeharrak batzuk izatea, dela Espainiako araudian txertatuak, dela Europar Batasunekoak, merkatu globaleko erreminta Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundearen esparruan aplikatzeko. Alde horretatik, Europako Batzordeak egintza eskuordetuak onar ditzake nazioarteko abiazioaren isurketen jarraipen, jakinarazpen eta egiaztapen egokiei dagokienez, merkatu globaleko tresna hori aplikatzeko. Era berean, orain arte ez bezala, aire-operadoreek isurketen jarraipen- eta jakinarazpen-metodologia sinplifikatuak baliatu ahaliko dituzte, baldin eta urtean 3.000 tona CO₂ baino gutxiago isurtzen badute Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimeneko irismen murriztuan. Era berean, doako esleipena eta aldi horretan abiaziorako enkantean jarri behar diren eta Europar Batasuneko araudiak ezarritako erregulazioaren mende dauden eskubideak aipatzen dira.

Halaber, aldatu egiten dira martxoaren 9ko 1/2005 Legearen azken xedapenetako lehenengotik hirugarrenera bitartekoak, eta ezabatu egiten da azken xedapenetako hirugarrena bis xedapena. Testu berriko azken xedapenetako bigarrenean –Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzeari buruzkoa–, berariaz gehitzen da 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentarauaren zati bat.

Aldatu egiten da I. eranskina, eta k) letra txertatzen zaio abiazioari buruzko 29. puntuan: salbuetsi egiten ditu berotegi-efektuko gasak Europar Batasuneko araudian ezarritako atalasearen azpitik isurtzen dituzten operadore ez-komertzialak. Aldatu egiten da, orobat, martxoaren 9ko 1/2005 Legearen V. eranskina, eta, horren bidez, eguneratu egiten da legearen xedapenek eragiten dieten subjektuei buruzko koadroa.

Lege aldatzaile honek xedapen iragankor bakarra du, eta, beraz, aldatutako zenbait xedapenek aurreko testuan idatzita bezala segitzen dute indarrean 2013-2020 salerosketa-aldian ere. Hori horrela izanik, bermaturik geratzen da Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren III. eta IV. faseen arteko jarraitutasuna.

Amaitzeko, hiru azken xedapen jasotzen ditu. Azken xedapenetako lehenak onartzen den araudiaren oinarri diren eskumen-tituluak jasotzen ditu. Hasteko eta behin, aintzakotzat hartzekoa da Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 artikulua, zeinak ingurumena babesteko oinarritzko legedia emateko eskumen eskusiboa ematen baitio Estatuari, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek babes-arau osagarriak emateko dituzten eskumenak. Izan ere, martxoaren 9ko 1/2005 Legearekin eta martxoaren 9ko 1/2005 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 13/2010 Legearen bidez egindako aldaketarekin gertatu zen bezala, lege honek txertaturiko berritasun edo xedapenak ere, gehienbat, ingurumenarekin loturik daude, dela haien helburua atmosferara berotegi-efektuko gas antropogeniko gutxiago isurtzen laguntzea delako, dela Parisko Akordioaren, Espainiako ordenamendu juridikora ekarri beharreko zuzentarauen eta Europar Batasuneko gainerako erregelamenduen babespean harturiko konpromisoak dituztelako jatorrian. Hori horrela, ingurumena babestearen arloko oinarritzko legedi gisa arautu dira isurketa-baimenei, isurketen gaineko jarraipen- eta jakinarazpen-betebeharrei eta datuak egiaztatzeari buruzko aldaketak; hala ere, babesturik geratzen dira autonomia-erkidegoek babes handiagoa dakarten garapen-arauak emateko dituzten eskumenak, bai eta autonomia-erkidegoek beren lurralde-esparruan dituzten ingurumenaren arloko betearazpen- edo kudeaketa-eskumenak ere. Aire-operadorei dagokienez, Estatuako Administrazio Orokorrak kontrolatzen ditu horiek ingurumen-arloan, uztailaren 5eko 13/2010 Legeari buruzko justifikazio bera oinarri hartuta: justifikazio huraxe izan zen arrazoi nagusia Espainiako ordenamendu juridikora ekartzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/101/EE Zuzentaraua, 2003/87/EE Zuzentaraua aldatzen duena, Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean txertatzeko abiazio-jarduerak.

Era berean, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13 artikuluan xedatutakoari jarraikiz ematen da lege hau. Artikulu haren arabera, Estatuarena da jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa arautzeko eskumena. Horren arrazoia da Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenak ondorioak dituela sektore ekonomiko jakin batzuetan, hala nola sektore industrial eta elektrikoan eta abiazio-sektorean, eta eragina duela, orobat, enpresen erabakietan. Orain txertatzen diren aldaketek dimentsio ekonomikoa ere badute, eta horrexegatik jarraitu behar da kontuan hartzen aipaturiko artikuluko hartan Estatuari esleitutako eskumena. Hartara, uztailaren 5eko 13/2010 Legearekin gertatu zen bezalaxe, eta konstituzio-jurisprudentziak onartzen duenarekin bat, orain sartutako berritasunak isurketa-eskubideen merkatuaren funtzionamendua arautzen duten oinarriak dira, bai eta Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren aplikazio homogeneoa bermatzeko ezinbestean bete behar diren neurri bereziak ere, lehia-distortsioak izatea edo jarduera-sektoreen eta instalazioen artean justifikaziorik gabeko aldeak izatea eragozten dutenak. Ildo horretan, isurketa-eskubideen eta haien salerosketaren erregimen juridikoa erregulatzen da, salerosketa-aldien eta -moduaren erregulazioa barne, eta erregulatu egiten dira, era berean, isurketa-eskubideak esleitzeko metodoak eta prozedura jakin batzuen izapidetzea eta ebazpen-moduak ere (besteak beste, neurritz gain transferitutako eskubideak doan esleitzeko, doitzeko eta itzultzeko prozedurak); horren xedea da ziurtatzea Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena Europar Batasunerako ezarritako helburuen arabera eta modu homogeneoan aplikatzen dela Espainiako lurralde osoan, instalazio bakoitza dagoen tokia gorabehera. Horrekin loturik, azpimarratzekoak dira jarduera-mailen jarraipenari dagokionez sartutako berrikuntzak, bai eta esleipen-mailetan aldaketak izaten direnerako haietan egiten diren doikuntzak ere.

Azkenik, nabarmendu behar da beharrezkotzat jotzen dela kontuan hartzea Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan aire-espazioaren eta aire-zirkulazio eta -garraioaren kontrolaren arloan jasotako eskumen-titulu zehatza, lege honen artikuluko bakarraren hogeita hamargarren apartatuari dagokionez, Estatuaren eskumen eskusiboari eragiten baitio.

Azken xedapenetako bigarrenak berariaz jasotzen duenez, partzialki txertatzen da 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentaraua. Azken xedapenetako hirugarrenak, azkenik, ezartzen du *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean lege-testu hau.

XII

Lege honek betetzen ditu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Zehazki, betetzen ditu premia- eta eraginkortasun-printzipioak. Izan ere, martxoaren 9ko 1/2005 Legea aldatuta, interes orokorreko helburua lortzen laguntzen du, Espainiako ordenamendu juridikora egokituz Europar Batasuneko araudiak berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketaren arloan txertaturiko berrikuntzak, eta, bereziki, 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentaraua egokituz. Hala, lege-mailako araua eta martxoaren 9ko 1/2005 Legea aldatzeko araua izaki, erremintarik eraginkorra da aipaturiko xede hori lortzeko. Bat dator, orobat, proportzionaltasun-printzipioarekin ere, legeak jasotzen baitu bete beharreko beharrari erantzuteko ezinbestekoa den erregulazioa. Hori horrela, aipaturiko zuzentaraua Espainiako ordenamendu juridikora egokitzeko beharrezko diren xedapenak sartzeaz gainera, araua egokiturik dago IV. fasea Europar Batasuneko erregelamenduetan adierazitako aurreikuspen berrien arabera eta ahalik eta modu eraginkorrenean ezarri ahal izateko. Era berean, adierazi den bezala, ez dira sartzen Europar Batasunaren esparruan definitu eta kudeatu beharreko aurreikuspenak, baizik eta erregulazio hartara jotzen da; horri esker, malgutasun handiagoa ematen zaio Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenari Espainian. Lege hau bat dator, halaber, segurtasun juridikoaren printzipioarekin; izan ere, loturik geratzen da Espainiako eta Europar Batasuneko zuzenbideekin. Eta betetzen du, orobat, gardentasun-printzipioa, Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenak Espainian duen funtzionamenduaren eta aplikazioaren ezagutza orokorra sustatuz. Azkenik, koherentea da eraginkortasun-printzipioarekin, prozesuak dinamizatu eta sinplifikatu nahi baititu eta administrazio-kargak ahal den neurrian mugatu.

Artikulu bakarra. *Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legea aldatzea.*

Aldaketa hauek egiten zaizkio Berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legeari:

Bat. Honela geratzen da idatzita 1. artikulua lehengo lerrokada:

«Lege honen xedea da berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketa-erregimena erregulatzea, gas horien isurketa-murrizketak areagotzeko, kostuei dagokienez modu eraginkorren eta ekonomikoki modu efizientean».

Bi. Honela geratzen da idatzita 2. artikulua b) letra:

«b) Jaulkitzea: egintza horren bidez, Europar Batasuneko Erregistroko administratzaileak isurpen-unitateak edo -eskubideak biltzen ditu erregistro horretan ostatatutako kontuan».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 2. artikulua k) letra:

«k) Sartu berria: esleipen-aldi bat eman ondoren, aldi horretako sartu berrizat hartzen da I. eranskinean zerrendatutako jardueretako bat edo gehiago gauzatzen duen instalazio oro, baldin eta lehenbiziko aldiz eskuratu badu berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena dagokion esleipen-aldia hasi baino hemezortzi hilabete lehenago hasten den eta hurrengo esleipen-aldia hasi baino hemezortzi hilabete lehenago amaitzen den epe batean».

Lau. Honela geratzen da idatzita 2. artikulua s) letra:

«s) Kudeaketaz arduratzen den Batasuneko estatua: aire-operadoreei dagokienez Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena kudeatzeaz arduratzen den Batasuneko estatua.

Aire-operadoreak Europar Batasuneko ustiapen-lizentzia badu, operadore horri ustiapen-lizentzia eman dion Batasuneko estatua arduratuko da kudeaketaz. Bestela, abiaziorako isurketa-maila handiena esleituta daukan Batasuneko estatua arduratuko da kudeaketaz; aire-operadoreak erreferentziako urtean izandako hegaldietatik eratorritako isurketak hartzen dira kontuan, eta operadore hori estatu horri esleituta egotea I. eranskinaren 6. apartatuan aipatzen den zerrendan («Aireontzi-operadoreen eta haiei dagokien kudeaketaz arduratzen diren Batasuneko estatuen zerrenda»).

Bost. Honela geratzen da idatzita 2. artikularen v) letra:

«v) Isurketen jarraipen-plana: instalazio edo aire-operadore zehatz bati dagozkion isurketen jarraipen-metodologiaren dokumentazio xehatua, osoa eta gardena, barnean harturik datuak biltzeko eta tratatzeko jardueren dokumentazioa eta horien egiazkotasuna kontrolatzeko sistema».

Sei. Gaineratu egiten dira 2. artikuluko h), ñ), y) eta z) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«h) Entrega: instalazio baten titularrak edo aireontzi-operadore batek isurketa-eskubide bat kontabilizatzea, bere instalazioaren edo aireontziaren isurketa egiaztatuen ondorioetarako».

«ñ) Ezabatzea: titularrak isurketa-eskubide bat behin betiko ezabatzea, egiaztatutako isurketen ondorioetarako kontabilizatu gabe».

«y) Ezeztatzea: behin betiko ezabatzea isurketak murrizteko unitate bat edo titularrak ziurtatutako isurketak murrizteko unitate bat, egiaztatutako isurketen ondorioetarako kontabilizatu gabe».

«z) Erretiratzea: isurketak murrizteko unitate bat kontabilizatzea edo alderdi batek isurketak modu ziurtatuan murrizteko unitate bat kontabilizatzea Kyotoko Protokoloan, alderdi horrek jakinarazitako isurketen ondorioetarako».

Zazpi. Berritu egiten da 2 bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«2 bis artikulua. *Kooperazio- eta lankidetzaren harremanak.*

Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak lankidetzan arituko dira klima-aldaketaren arloan, eta partekatu egingo dute gai jakin batzuetan duten informazioa. Zehazki, informazio hau: sektoreei aplikatu beharreko metodologiak, hobekuntza teknologikoak, eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimenari, isurketak egiaztatzeari eta bakoitzari esleitutako isurketa-eskubideei dagokienez garrantzitsua izan litekeen beste edozein informazio, edo 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren aplikazioaz 21. artikuluan aurreikusten den txostenari buruzkoa, barnean harturik Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenetik salbuetsita geratu diren instalazio txikietarako harturiko neurri baliokideak eta txosten horretan jaso direnak. Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak lankidetzan arituko dira garapen garbiko proiektuetan eta, oro har, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioaren Kyotoko Protokoloa batera aplikatzekoetan».

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 3. artikulua:

«3. artikulua. *Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordea.*

1. Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordea sortzen da, Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazio-eta lankidetzaren organo gisa, isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena aplikatzeko eta horri dagozkion nazioarteko eta Europar Batasuneko informazio-betebeharrak

betetzeko, eta, oro har, honako esparru hauetan koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko:

- a) Klima aldaketaren jarraipena egitea eta haren ondorioetara egokitzea.
- b) Berotegi-efektuko gas-isurketak prebenitzea eta murriztea.
- c) Landare-formazioen karbonoa xurgatzeko ahalmena sustatzea.
- d) Klimaren Kontseilu Nazionalak ezartzen dituen irizpideak aintzakotzat harturik, alde batetik, Espainiak izendatutako agintaritzaren nazionalaren jardueraren orokorrak ezartzea, eta, bestetik, garapen garbiko eta Kyotoko Protokoloa elkarrekin aplikatzeko proiektuetan norbere borondatez parte hartzeko nahitaezko txostenak onesteko irizpideak ezartzea, Klima Aldaketarako Nazio Batuen Esparru Hitzarmenari begira.
- e) Lege honen aplikazio-eremuan sartzen ez diren sektore eta jardueretan isurketak murriztea sustatzen duten programak eta jarduerak bultzatzea.
- f) Isurketa-eskubideen erregimenaren aplikazioa harmonizatzeko jarraibide teknikoak, gomendioak eta ohar argigarriak prestatzea eta onestea.
- g) Herrialde barruko proiektuen erregimen nazionala garatzea eta ezartzea.
- h) Isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren esparruan izapidetzen diren lege-aurreproiektuei eta errege-dekretuei buruzko txostenak egitea.

2. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzako titularrak izango da batzordeburua. Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoko titularrak izendatuko du batzordeko idazkari-lanak egingo dituen pertsona.

Batzordeak kide hauek izango ditu:

- a) Estatuko Administrazio Orokorraren aldetik: hemeretzi kide, ingurumenaren, energiaren, ekonomiaren, ogasunaren, industriaren, turismoaren, merkataritzaren, barne-gaien, mugikortasunaren, hezkuntzaren, zientziaren, enpleguaren, nekazaritzaren, arrantzaren, elikaduraren, administrazio publikoen, osasunaren, kontsumoaren, 2030 Agendaren eta etxebizitzaren alorretako eskumenak dituzten ministerioek izendatuak, eta beste kide bat, Gobernuako Presidentetzak izendatua.
- b) Autonomia-erkidego bakoitzak izendaturiko batzordekide bat.
- c) Ceuta eta Melilla hiri autonomoek izendaturiko batzordekide bana.
- d) Toki-entitateak ordezkatzeko batzordekide bat, ezarpen handiena duen eta Espainia osoan jarduten duen elkarteak izendatua.

3. Batzordeak barne-funtzionamenduaren erregelamendua onetsiko du».

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 3 bis artikulua:

«3 bis artikulua. *Klimaren Kontseilu Nazionala eta Gizarte Elkarrizketako Mahaiak.*

1. Klimaren Kontseilu Nazionalak bermatuko du sindikatu-, enpresa- eta ingurumen-erakundeek parte hartzen dutela isurketa-eskubideen salerosketa-erregimena aplikatzeko jarraipen-lanean, aplikazio horrek lehiakortasunean, enpleguaren egonkortasunean, gizarte-kohesioan eta ingurumen-koherentzian dituen ondorioei erreparatuz parte hartu ere.

2. Hala, behar diren Gizarte Elkarrizketako Mahaiak bultzatuko dira, sindikatuek eta enpresaburuaren elkarteek isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren aplikazioak Espainian duen inpaktuaren gaineko jarraipenean parte hartzen dutela bermatzeko».

Hamar. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua 2. apartatua:

«2. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak emango du berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena, eta honako eduki hau izango du:

- a) Instalazioaren titularraren izena eta helbidea.
- b) Identifikazioa, instalazioaren helbidea eta jakinarazpenetarako helbidea.

- c) Instalazioaren jardueren eta isurketen oinarritzko deskribapena.
- d) Isurketen jarraipen-plan bat, Europar Batasunaren araudi aplikagarriaren eta onartzen den garapen-araudiaren arabera baldintzak betetzen dituena.
- e) Informazioa emateko betebeharrak, Europar Batasunaren araudi aplikagarriaren eta, halakorik denean, garapen-araudiaren arabera.
- e bis) Jarraipen-planari, isurketei buruzko urteko txostenari eta titularraren, egiaztatzailearen eta agintari eskudunen arteko egiaztapen-jardueri buruzko komunikazioa bateratzeko sistema automatizatuen eta datuak trukatzeko formatuen erabilerari buruzko betebeharrak.
- f) Urte natural bakoitza amaitu eta hurrengo lau hilabeteetan isurketa-eskubideak entregatzeko betebeharra; zehazki, aurreko urtean egiaztatu diren instalazioaren guztizko isurketen kantitate berean entregatzekoa.
- g) Funtzionatzen hasteko aurreikusitako data.
- h) Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako eremuan titularrak hartzekoen kontu bat irekitzeko betebeharra».

Hamaika. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua 5. apartatua:

«5. Titularrek Europar Batasuneko araudiaren arabera eguneratuta eduki beharko dituzte isurketen jarraipen-planak, eta plan horiek aldatzeko edozein proposamen jakinarazi beharko diote autonomia-erkidegoko organo eskudunari, justifikatu gabeko atzerapenik gabe. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak utzi ahalko die titularrei isurketen jarraipen-planak eguneratzen, baimena aldatu gabe.

Aurreko hori alde batera utzi gabe, aldaketa hori ez bada jotzen adierazgarritzat Europar Batasunaren araudiaren arabera, instalazioaren titularrak, beranduenez ere, aldaketa egiten den urteko abenduaren 31n aurkeztu ahal izango du jarraipen-planaren aldaketa.

Isurketen jarraipen-planean aldaketa nabarmenik egiten bada Europar Batasuneko araudian ezarritakoaren arabera, autonomia-erkidegoko organo eskudunak onetsi beharko du. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak, irizten badio instalazioaren titularrak jakinarazitako aldaketa nabarmen bat ez dela halakotzat jotzen Europar Batasunaren araudian ezarritakoaren arabera, horren berri emango dio instalazioaren titularrari».

Hamabi. Honela geratzen da idatzita 5. artikulua f) letra:

«f) Isurketen jarraipen-planaren proposamen bat, une oro beteko dituena Europar Batasunean eta Espainian indarrean diren eskakizunak».

Hamahiru. Honela geratzen da idatzita 7. artikulua:

«7. artikulua. *Baimena azkentzea.*

Berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimenak azkendurik geratuko dira honako kasu hauetan:

- a) Instalazioa ixten bada.
- b) Instalazioa ez bada hasten funtzionatzen baimenean aurreikusitako abiarazte-datatik hiru hilabetera, nola eta ez den kausa justifikaturen bat, baimena emateko eskumena duen organoak hala deklaratu.
- c) Zehapen-kasuetan, 30.1.a).3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.
- d) Instalazioaren jarduera eteten bada urtebete baino gehiagoan. Salbuespenez, organo eskudunak jarduera eten denetik gehienez ere hemezortzi hilabetera arte atzeratu ahal izango du baimenaren azkentzea, lege hau garatzeko erregelamenduan eta Europar Batasuneko Zuzenbidean aurreikusitakoaren arabera».

Hamalau. Honela geratzen da idatzita 8. artikulua:

«8. artikulua. *Erregistroaren arloan eskumena duen organoari egin beharreko komunikazioak.*

Autonomia-erkidegoek baimenak emateko, aldatzeko eta azkentzeko ebazpenak jakinaraziko dizkiote Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari, organo hori baita erregistroaren arloko organo eskuduna 25.3 artikulua jasotzen duenaren arabera. Komunikazio horietarako, hamar eguneko epea izango dute ebazpena ematen denetik».

Hamabost. III. kapitulua «Isurketa-eskubideak» deituko da aurrerantzean, eta honela geratzen da idatzirik:

«III. KAPITULUA

Isurketa-eskubideak

9. artikulua. *Isurketa-eskubideen juridikotasuna.*

1. Isurketa-eskubidea lege honen aplikazio-eremuan bilduriko instalazio batetik edo aireontzi batetik tona baliokide bat karbono dioxido atmosferara isurtzeko eskubide subjektiboa da.

2. Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio Espainian kokatutako instalazioei eta Espainiak kudeatzen dituen aire-operadorei doan ematen zaizkien isurketa-eskubide guztien jatorrizko titulartasuna, bai eta enkantean jarritako isurketa-eskubideena ere. Estatuko Administrazio Okorrorak, orobat, lege honetan ezarritakoaren arabera esleitu, besterendu edo ezabatuko ditu eskubideok.

3. Isurketa-eskubidea eskualdagarria izango da.

4. Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean inskribatu beharko da isurketa-eskubideen jaulkipena, titulartasuna, transferentzia, eskualdaketa, entrega eta ezabatzea.

10. artikulua. *Isurketa-eskubideei aplikatu beharreko finantza-araudia.*

1. Finantza-tresnatzat hartzen dira isurketa-eskubideak eta haien gaineko deribatuak, aplikatzekoa den Espainiako eta Europar Batasuneko araudiaren arabera.

2. Merkatu horietako finantza- eta kontrol-tresnen merkatuei buruz Espainian eta Europar Batasunean ezarritako araudia aplikatuko zaie horien gaineko isurketa-eskubideekin edo deribatuekin jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoei.

11. artikulua. *Isurketa-eskubideak eskualdatzea.*

1. Isurketa-eskubideak eskualdagarriak izango dira:

a) Europar Batasuneko pertsona fisiko edo juridikoen artean.

b) Aurrekoen eta hirugarren estatuetakoko pertsona fisiko edo juridikoen artean, edo hirugarren estatu horietako eskualde-erakunde edo erakunde azpifederalen artean. Betiere, alderdi sinatzaileek eskubideak elkarri aitortu behar dizkiote aurrez, nazioarteko tresnaren baten bidez.

2. Instalazioaren titular edo aire-operadore ez diren pertsona fisiko edo juridikoen, isurketa-eskubideak eskuratzeko, alde aurretik dagokion kontua ireki beharko dute Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean.

3. Titularrak jaulki eta bere kontura transferitu ondoren bakarrik eskualdatu ahal izango dira isurketa-eskubideak, betiere 26. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

4. Europar Batasuneko Erregistroko Espainiako arloan inskribatzen den unean egingo da eskualdaketa.

5. Legitimotzat jotzen da Europar Batasuneko Erregistroan argitaratutako titulartasuna, eta inskribatuta ageri denarengandik eskuratzen duen hirugarrenak ez du aldarrikatu beharrik izango titulartasun hura, baldin eta kostu bidez eta fede txarrik zein erru larririk gabe eskuratu badu.

12. artikulua. *Isurketa-eskubideen baliozkotasuna.*

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulkitako isurketa-eskubideek balio mugagabea izango dute. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera emandakoetan, zer salerosketa-alditan jaulki ziren adieraziko da, eta baliozkoak izango dira aldi horretako lehen urtetik aurrerako isurketetarako.

13. artikulua. *Salerosketa-aldiak.*

1. Salerosketa-aldiek Europar Batasuneko araudiak zehazten duen iraupena izango dute, eta esleipen-aldi bat baino gehiago hartu ahal izango dituzte.

2. 2021-2030eko salerosketa-aldia, instalazio finkoen esparruan, bi esleipen-alditan banatzen da: 2021-2025ekoa eta 2026-2030ekoa».

Hamasei. Honela geratzen da idatzita 14. artikulua:

«14. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. Enkantea da esleitzeko oinarrizko metodoa, Europar Batasunaren araudiarekin bat. Europako Batzordeak zehaztuko du, Europar Batasunaren araudia aplikatuz, enkantean ematen diren isurketa-eskubideen ehunekoa.

2. Europar Batasunaren araudiaren arabera egingo dira enkanteok, eta lehia-askatasunaren, publizitatearen, gardentasunaren, diskriminaziorik ezaren eta efizientziaren printzipioen arabera arautuko dira. Alde horretatik, irizpide hauei jarraituko die enkante-erregimenak:

a) Titularrek eta, bereziki, lege honen aplikazio-eremuko edozein enpresa txiki edo ertainek sarbide osoa, zuzena eta bidezkoa dutela zaindu beharko da.

b) Parte-hartzaile guztiek informazio bera izan beharko dute eskuragarri, aldi berean, eta parte-hartzaile bakar batek ere ez du oztopatuko enkanteen garapena.

c) Enkanteen antolaketak eta parte-hartzeak efizienteak izan beharko dute kostuen ikuspegitik, eta saihestu egin beharko dute alferrikako administrazio-kostu oro.

d) Enkanteak bermatuko du isurle txikiek isurtzeko eskubideak izatea.

3. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzari dagokio kontu egitea berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubide-enkanteak aplikatzean eta kudeatzean aintzakotzat hartzen dela Europar Batasuneko araudian eta, hala badagokio, lege hau garatzeko araudian ezarritakoa.

Ingurumeneko Estatu Idazkaritzako titularra da enkantegilea, Europar Batasunak enkanteen arloan duen araudiari jarraikiz.

4. Neurri nazional osagarriak hartzearen ondorioz elektrizitatea sortzeko ahalmena eteten bada, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak ezeztatu ahal izango du enkantean jarri beharreko isurketa-eskubideen gehieneko kantitatea, harik eta instalazioaren ahalmena eten aurreko bost urteetan dena delako instalazio horretan egiaztatutako isurketen batezbestekora iritsi arte. Organo horrek jakinarazi egin beharko dio ezeztatze hori Europako Batzordeari, Europar Batasunaren enkanteen arloko araudiak dioenari jarraikiz».

Hamazazpi. Honela geratzen da idatzita 15. artikulua:

«15. artikulua. *Txostenak.*

Enkante bakoitza egin eta hilabete igaro baino lehen, Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak enkanteari buruzko txosten bat argitaratuko du, hura nola joan den azaltzen duena, eta, bereziki, alderdi hauek zehaztuko ditu txostenean: enkante-arauen aplikazioa, operadore guztiek sarbide justu eta askea izatearen ingurukoak, ebazpenaren gardentasuna, prezioen kalkulua eta enkantearen alderdi tekniko eta eragileak».

Hemezortzi. Honela geratzen da idatzita 16. artikulua:

«16. artikulua. *Doako esleipen iragankorra jaso dezaketen instalazioak.*

1. Europako Batzordeak zehaztuko ditu karbono-ihesa izateko arrisku nabarmena duten sektoreak, Batasunaren araudiak dioena aintzakotzat harturik.

2021ean hasi eta 2030era arte, karbono-ihesaren arrisku nabarmena duten sektoreetako edo azpisektoreetako instalazioek doan jasoko dituzte eskubideak urtero-urtero. Kasu horretan, isurketa-eskubideen doako esleipena harmonizatzeke Europar Batasuneko arau iragankorren arabera zehaztutako zenbatekoaren ehuneko ehunera iritsiko da doako esleipen-maila.

2. Karbono-ihesak izateko arrisku handirik gabeko sektore edo azpisektoreetakoak diren eta doako esleipena jaso dezaketen instalazioen kasuan, Europar Batasuneko arau harmonizatuen arabera zehaztutako zenbatekoaren ehuneko hogeita hamar izango da 2021ari dagozkion isurketa-eskubideen kantitatea, harik eta 2026ra arte. 2026aren ondoren eta 2030era arte, urtero kopuru berean murriztuko da ehuneko hori, nola eta ez den bestelakorik erabakitzen 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 30. artikulua arabera egiten den berrikuspenean. Hala, 2030ean isurketa-eskubiderik doan esleitzen ez den egoera batera iritsiko da, hiri-berokuntzaren alorrean izan ezik, azken hori 2030era arte mantenduko baita. Azken horrek Europar Batasuneko arau harmonizatuen arabera zehaztutako kopuruaren ehuneko hogeita hamarrari eutsiko dio 2030era arte.

3. Apartatu honetako lehen eta bigarren lerroketan xedatutakoa alde batera utzi gabe, 2021etik aurrera ez zaie esleituko doan isurketa-eskubiderik elektrizitate-sortzaileei, atzipen-instalazioei, garraiorako eroanbideei eta karbono dioxidoa biltegitratzeko guneei.

Hondakin-gasak errez sorturiko elektrizitatearen kasuan, baina, doan esleituko zaizkie isurketa-eskubideak hondakin-gasen errekontza-instalazioen titularrei edo gas horien jatorrizko instalazioenei, erregelamenduz eta Europar Batasuneko araudiak aurreikusten duenarekin bat, baldin eta industria-produkzioko prozesuan ezinezkoa bada isurketok saihestea, eta araudiak hala baimentzen badu.

Isurketa-eskubideak doan esleituko zaizkie hiri-berokuntzari eta efizientzia handiko kogenerazioari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauan definitzen den moduan, ikuspuntu ekonomikotik justifikatutako eskaera bati erantzuteko bero- edo hotz-ekoizpenari dagokionez. Urteroko bakoitzean, Europar Batasuneko arauen arabera egokituko da beroa ekoizteko instalazio mota horientzako guztizko esleipena.

4. Europar Batasuneko araudian ezarritakoarekin bat, funtzionatzeari utzi dioten instalazioei ez zaie inolako eskubiderik doan esleituko, nola eta instalazioen titularrek ez dioten erakusten agintari eskudunari instalazioek ekoizteari ekingo diotela ondo zehaztutako arrazoizko epe batean».

Hemeretzi. Honela geratzen da idatzita 17. artikulua:

«17. artikulua. *Esleitzeko arauak.*

Isurketa-eskubideen doako esleipena harmonizatzeko Europar Batasuneko arau iragankorrek erregulatuko dute doako esleipen iragankorraren metodologia, bai eta lege hau garatzeko ezartzen den araudiak ere, halakorik ezartzen bada behintzat».

Hogei. Honela geratzen da idatzita 18. artikulua:

«18. artikulua. *Sartu berriak.*

1. Isurketa-eskubideen kantitate bat doako esleipen gisa gordeko da 2021-2030eko aldiko sartu berrientzat, Europar Batasunaren araudian ezarritakoaren arabera. Sartu berrientzako erreserba hori komuna eta bakarra izango da Batasun osorako, eta azken horren araudiaren arabera.

2. Ez zaio esleituko eskubiderik sartu berriek ekoiztako elektrizitate-ekoizpen mota bati ere doan».

Hogeita bat. Honela geratzen da idatzita 19. artikulua:

«19. artikulua. *Isurketa-eskubideen doako eta banakako esleipena.*

1. Instalazioen titularrek isurketa-eskubideak doan esleitzeko eskatu ahal izango diote Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari, esleipen-aldi bakoitzerako.

2. Erregelamenduz ezarriko da isurketa-eskubideak doan esleitzeko eskabideak aurkezteko epea, eta halaxe definituko dira, orobat, haien edukia, formatua eta haiekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, bai eta egokitzat jotzen den beste edozein alderdi ere, betiere Europar Batasunaren araudiari jarraikiz.

3. Eskubideak doan esleitzeko eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Instalazioaren titularra izatearen eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena izatearen egiaztagiria. Esleipen-eskaeraren unean titularrak dagokion baimena eskatu badu, baina oraindik ez badiote eman, baimen-eskaera aurkezte hutsarekin eskatu ahalko du esleipena. Hala ere, esleipen-aldia hasi baino gutxienez hemezortzi hilabete lehenago lortu beharko du aipatutako baimena, eta Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoan aurkeztu beharko du, lortzen duenetik hilabete igaro baino lehen. Hala egin ezean, sartu berriztat hartuko da, 2. artikuluko k) letrak dioenarekin bat.

b) Esleipena kalkulatzeko beharrezkoak diren instalazioaren datu guztiak, doako esleipen iragankorrari buruzko Europar Batasuneko arau harmonizatuek diotenari jarraikiz, eta, kasuak hala eskatzen badu, lege hau garatzeko araudiaren arabera.

c) Erantzukizunpeko adierazpen bat, adierazten duena instalazioak badituela Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko araudi aplikagarriak instalazioa martxan jartzeko eskatzen dituen administrazio-baimen eta -lizentzia guztiak.

Ez da beharrezkoa izango egiaztatutako isurketei buruzko datuak aurkeztea, baldin eta Europar Batasuneko Erregistroan jasota badaude.

Oraindik martxan ez dauden instalazioen kasuan, gutxi gorabehera zer egunetan ipiniko diren adieraziko da.

4. Jendaurreko informazioaren izapidea egin ondoren, Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez egingo da isurketa-eskubideen doako esleipena, Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeari kontsulta egin ondoren eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak, Industria, Merkataritza eta Turismoko Ministerioak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka

Demografikorako Ministerioak proposatuta. Era berean, esleitu beharreko eskubideen kopurua zehazte aldera, egoki iritzitako hartu-emanak izango dira Europako Batzordearekin, Batasunaren araudiaren arabera dagokionaren bidetik.

5. Erabakian zehaztuko dira esleipen-aldi batean esleitutako eskubideen kopurua eta instalazio bakoitzari urte bakoitzerako esleitutako eskubideak. Esleipen-eskaera egin denetik hogeita bi hilabeteko epea igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunak pentsatu beharko du eskaera ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez.

6. Erabaki hori autonomia-erkidegoei jakinaraziko zaie, hartu eta hamar eguneko epean.

7. Herritarren eskura egongo dira isurketa-eskubideen banakako esleitzeari buruzko ebazpenak, ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzen duten arauetan aurreikusitako baldintzetan eta mugekin».

Hogeita bi. Aurrerantzean, V. kapitulua «Isurketa-eskubideen doako esleipena doitzea eta itzultzea» deituko da, eta honela geratzen da idatzita:

«V. KAPITULUA

Isurketa-eskubideen doako esleipena doitzea eta itzultzea

20. artikulua. *Instalazioei doan esleitutako isurketa-eskubideen mailak doitzea.*

1. 2021etik aurrera, ehuneko hamabost baino gehiago handitu edo murriztu bada instalazio baten jarduera-maila, bi urteko batezbesteko mugikorrean oinarrituriko ebaluazioen arabera eta dagokion esleipen-aldian doako esleipena zehazteko hasieran erabilitako jarduera-mailarekin alderatuta, doitu egingo da instalazio horri esleitutako isurketa-eskubideen kantitatea, Europar Batasuneko araudiak ezarritakoaren arabera.

Doikuntza horretarako, 22.2 artikuluan xedatutakoaren arabera egiaztatutako jarduera-txostena hartuko da kontuan, Europar Batasuneko araudian eta lege hau garatzeko araudian ezarritakoari jarraikiz.

2. 2021-2030eko aldirako, erregelamendu bidez zehaztuko dira jarduera etetea edo instalazioa ixtea eragiten duten inguruabarrak, bai eta jarduera-mailetan izandako aldaketen ondorioz edo beste inguruabar batzuen eraginez instalazioei doan esleitutako isurketa-eskubideen mailen doikuntzei buruzko alderdiak ere. Horretarako, Europar Batasunaren araudiak dioenari jarraituko zaio.

21. artikulua. *Isurketa-eskubideak itzultzea.*

1. Instalazioen titularrek itzuli egingo dituzte neurritz gain transferitu diren isurketa-eskubideak edo itzuli behar direnak. Erregelamendu bidez garatuko da itzultzeko prozedura, eta, kasu guztietan ere, instalazioaren titularrari hitz egiteko aukera eman behar zaio.

2. Isurketa-eskubideak itzultzeko ebazpena jakinarazten denetik sei hilabete igaro ondoren instalazioaren titularrak ez baditu itzuli neurritz gain transferitu diren isurketa-eskubideak edo itzuli behar direnak, Administrazioak nahitaezko betearazpenari ekin ahal izango dio, Gobernuak errege-dekretu bidez ezartzen duen prozeduraren arabera.

3. Administrazioak neurritz gain transferitu zaien edo itzuli behar duten esleipena itzul dezaten exiji diezaieke instalazioen titularrei; bost urtera preskribatuko du eskubide horrek, erreklamaturako esleipena Europar Batasuneko Erregistroan titularraren kontura transferitu den egunetik zenbatzen hasita.

Bost urtera preskribatuko du Administrazioak ofizioz betearazteko duen eskubideak, neurritz gain transferituriko edo itzuli beharreko eskubideak itzultzeko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita».

Hogeita hiru. VI. kapitulua, aurrerantzean, «Instalazio finkoetako isurketen jarraipena eta jakinarazpena egiteko obligazioak, eta datuak egiaztatzea eta egiaztatzaileak akreditatzea» deituko da, eta honela geratzen da idatzita:

«VI. KAPITULUA

Instalazio finkoetako isurketen jarraipena eta jakinarazpena egiteko betebeharrak, eta datuak egiaztatzea eta egiaztatzaileak akreditatzea

1. atala. Instalazio finkoetako isurketen eta jarduera-mailen jarraipena eta jakinarazpena egiteko betebeharrak

«21 bis artikulua. *Instalazio finkoetako isurketen eta jarduera-mailen jarraipena egitea.*

1. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimenean jasotako isurketen jarraipen-planean oinarrituta egingo da isurketen jarraipena. Jarraipen-plan hori autonomia-erkidegoko organo eskudunak onetsia izango da, Europar Batasunaren araudiak dioenari jarraikiz.

2. Isurketa-eskubideen doako esleipena eskatu duten instalazioek beren azpi-instalazioen jarduera-mailen jarraipena egingo dute, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak onetsitako jarraipen-plan metodologikoan oinarrituta, betiere Europar Batasunaren araudiarekin eta lege hau garatzekoarekin bat etorritz.

3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira jarraipen-plan metodologikoarekin eta haren aldatetekin zerikusia duten alderdiak, aplikatu beharreko Europar Batasunaren araudiarekin bat etorritz.

22. artikulua. *Informazioa jakinaraztea.*

1. Instalazioaren titularrak urtero otsailaren 28a baino lehen bidali beharko dio autonomia-erkidegoko organo eskudunari aurreko isurketei buruzko txosten egiaztatua. Txosten horrek baimenean eskatzen dena bete beharko du, 4.2.e) artikuluan eta III. eranskinaren A zatian xedatutakoarekin bat.

2. Isurketa-eskubideak doan esleitu zaizkion instalazioaren titularrak urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen igorri beharko dio instalazioaren azpi-instalazioen jarduera-mailari buruzko txosten egiaztatua Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari, Europar Batasunaren araudian eta lege hau garatzeko araudian ezarritako baldintzetan.

3. 1. eta 2. apartatuetan aipaturiko txostenen gutxieneko edukia bat etorriko da Europar Batasunaren araudian eta lege hau garatzeko ematen den araudian ezarritakoarekin.

Txosten horiek IV. eranskinaren A zatian eta egiaztapenari eta akreditazioari buruzko Europar Batasunaren araudian xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko dira, eta lege hau garatzeko araudiaren arabera, halakorik denean. Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeak nahitaez jakinaraziko du araudi hori.

Garapen-araudiak zenbait baldintza ezarri ahal izango ditu, alde batetik, instalazioen titullarrek jakinaraz ditzaten nazioarteko eskumenaren mende egon daitezkeen energia-kontsumitzaile handien industrietako produktuak fabrikatzearekin lotuta dauden isurketak, eta, bestetik, modu independentean egiazta dadin isurketoi buruzko informazioa. Baldintzok Europar Batasuneko araubidean bilduta dagoen eta produktu horiek fabrikatzeko behar den elektrizitatea sortzeak eragiten dituen isurketa-mailak jakinarazteari buruzkoak izan daitezke.

Jarraipenaren eta jakinarazpenaren arloko garapen-araudian, instalazio finkoetarako komunikazioa bateratzeko sistema automatizatuen eta datu-trukerako formatuen erabilerari buruzko betekizunak jaso ahal izango dira.

4. Sekretu profesionalak babestutako informazioa ezingo zaio jakinarazi ezein pertsona edo agintariri, nola eta ez den kontrakorik zehazten aplikagarri diren lege-, erregelamendu- edo administrazio-xedapenetan.

23. artikulua. *Aurreko urteko isurketei buruzko txosten egiaztatuaren balioespena.*

1. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak, ontzat ematen badu 22.1 artikuluan deskribatzen den aurreko urteko isurketei buruzko txosten egiaztatua, abian den urteko martxoaren 31 baino lehen inskribatuko du aurreko urteko isurketei buruzko datua Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean horretarako apropos ipintzen den isurketa egiaztatuen taulan.

2. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak, ez badu ontzat ematen txosten egiaztatua, titularrari jakinaraziko dizkio desadostasunak, horiek konpontzeko eta ondoren txostena ontzat emateko proposamenak eta, hala dagokionean, isurketen zenbatespena. Instalazioaren titularraren alegazioak aztertu ondoren, autonomia-erkidegoko organo eskudunak erabakia hartuko du eta instalazioaren isurketei buruzko datua inskribatuko du Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean horretarako apropos ipintzen den isurketa egiaztatuen taulan.

3. Titularrak ez badu bidaltzen txosten egiaztatua 22.1 artikuluan ezarritako epean, autonomia-erkidegoko organo eskudunak zenbatetsiko ditu isurketak, eta instalazioaren isurketei buruzko datua inskribatuko du Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean horretarako apropos ipintzen den isurketa egiaztatuen taulan. Instalazioaren titularrarekiko alde aurreko entzunaldiaren izapidea egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua araberak.

4. Artikulu honetako 2. eta 3. apartatuetako kasuetan, eskatzen den metodologiaren arabera kalkulatu da isurketei buruzko datua.

5. Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeak eskatu ahal izango du artikulu honetan aurreikusitako eginkizunak betetzeko eskumena duten agintariek eman diezaiotela haien garapenaren berri.

2. atala. Datuak egiaztatzea eta egiaztatzaileak akreditatzea

24. artikulua. *Datuak egiaztatzea.*

2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 14. eta 15. artikulua garatzen dituen Europar Batasuneko araudiaren arabera egiaztatu beharko dira isurketa-datuei buruzko urteko txostena, doako esleipena eskatzeko erreferentziako datuei buruzko txostena, sartu berrien datuei buruzko txostena eta jarduera-mailari buruzko txostena.

«24 bis artikulua. *Egiaztatzaileak akreditatzea.*

24. artikuluko egiaztapen-jardueretan diharduten egiaztatzaileak akreditatuta egon beharko dute, Europar Batasunaren araudian ezarritako betekizunen arabera, eta, bereziki, datuak egiaztatzeari eta egiaztatzaileak akreditatzeari buruzko Batzordearen 2018ko abenduaren 19ko (EB) 2018/2067 Betearazpen Erregelamenduaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentarauaren arabera».

Hogeita lau. VII. kapituluak «Europar Batasuneko Erregistroa eta isurketa-eskubideak entregatzeko betebeharrak» izena hartuko du aurrerantzean, eta honela geratzen da idatzita:

«VII. KAPITULUA

Europar Batasuneko Erregistroa eta isurketa-eskubideak entregatzeko betebeharrak

25. artikulua. *Europar Batasuneko Erregistroa.*

1. Europar Batasuneko Erregistroaren bidez, bermaturik geratzen da isurketa-eskubideen eta beste unitate batzuen titulartasuna eta kontrola agerikoak izatea eta etengabe eguneratzea, hala nola isurketak murrizteko unitateena edo Kyotoko Protokoloko isurketen murrizketa ziurtatuena. Horretarako tresna da erregistroa, eta Europar Batasuneko araudiaren eta lege honetan ezarritakoaren arabera erregulatzen da.

2. Instalazio finkoen titularrak eta aire-operadoreak beharturik egongo dira Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean titularraren hartzekoen kontu bat irekitzera.

Hala, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari jakinaraziko zaizkio aire-operadoreen isurketen jarraipen-planak onesteko eta azkentzeko ebazpenak, hura baita, hurrengo apartatuaren arabera, erregistroaren arloko organo eskuduna. Horretarako, hamar eguneko epea izango da, ebazpenak onartzen direnetik.

3. Europar Batasuneko Erregistroa eskuragarri egongo da herritarrentzat, Europar Batasuneko araudian aurreikusitako moduan. Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako arloari dagokionez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoa izango da organo eskuduna. Bulego horrek dagozkion eskumenak baliatuko ditu Espainiako lurraldean kokaturiko instalazioen hartzekoen kontuen jarduerari dagokionez, Espainiari dagozkion kudeaketako aire-operadoreen hartzekoen kontuen jarduerari dagokionez, eta Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean Europar Batasunari eskaera egin ondoren irekitako pertsona fisiko eta juridikoen kontuei dagokienez, instalazio finkoen isurketa egiaztatuen datua inskribatzeari dagokionez autonomia-erkidegoek duten eskumenaren kalterik gabe.

4. Europar Batasuneko Erregistroaren xedea hau izango da: isurketa-eskubideak, isurketak murrizteko unitateak eta isurketa-murrizketa ziurtatuak jaulkitzeari, eskualdatzeari, transferitzeari, entregatzeari, ezabatzeari, kentzeari, ezerezteari eta haien titulartasunari buruz egiten diren eragiketa guztiak inskribatzea, bai eta horien gaineko eskubide errealak edo bestelako kargak eratzea ere, Europar Batasuneko Erregistroa ezartzen eta arautzen duen araudiak hala jasotzen duen heinean. Halaber, aipaturiko unitateak eskualdatzeko gaitasuna eteteko erabakia inskribatuko da 26 bis artikuluan aurreikusitako kasuetan, bai eta garapenerako Europar Batasunaren araudian aurreikusitako gainerako kasuetan ere.

5. Errege-dekretu bidez garatuko dira Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorraren antolamendu- eta funtzionamendu-arauak, Europar Batasuneko Erregistroa ezartzen eta arautzen duen Europar Batasuneko araudian xedatutakoaren arabera.

26. artikulua. *Isurketa-eskubideak ematea.*

1. Urtero, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak urte horretan zenbat isurketa-eskubide eman behar diren jakinaraziko dio Europako Batzordeari, 14., 19., 38. eta 41. artikuluekin bat etorriz, dela instalazio finkoetarako, dela abiaziorako.

2. Urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak Europar Batasuneko Erregistroaren administratzaile zentralari proposamena egingo dio 19.5, 38.5 eta 41. artikuluetan jasotako akordioaren arabera

doan emandako isurketa-eskubideak automatikoki transferitzeko Europar Batasunaren dena delako esleipen-kontutik titular eta aire-operadore bakoitzaren hartzekoen kontura, bakoitzari dagozkion kantzitatean.

3. Hala ere, 2. apartatuan aipatzen den transferentzia ez da proposatuko urte bakoitzeko otsailaren 28an, baldin eta Europar Batasuneko aplikatzeko araudian eta lege hau garatzen duenean ezarritako egoeraren bat gertatzen bada.

4. Baliteke 2. apartatuan aipatzen den transferentzia ez proposatzea urte bakoitzeko otsailaren 28an, baldin eta aurreko urteetako esleipena transferitu bada eta ondoren jakiten bada gutxitu egin dela jarduera eta horren ondorioz murriztu egingo dela urte horretarako emandako doako esleipena, harik eta instalazioaren hartzekoen kontuaren titularrak neurritz gain transferitutako isurketa-eskubideak itzultzen dituen arte.

5. Baliteke 2. apartatuan aipatzen den transferentzia ez proposatzea urte bakoitzeko otsailaren 28an, jarraipen-plan metodologikoak ez baditu betetzen erregelamenduz ezarritako baldintzak.

6. Sartu berriei doan emandako isurketa-eskubideen transferentzia egiteko, Europar Batasuneko araudia hartuko da kontuan, eta, hala dagokionean, lege hau garatzekoa, eta, kasu guztietan ere, autonomia-erkidegoak instalazioa martxan jarri dela jakinarazi beharko dio lehenbizi Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari.

«26 bis artikulua. *Isurketa-eskubideak eskualdatzeko eragiketak etetea.*

1. Titularrak ezingo ditu eskualdatu isurketa-eskubideak 23. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetan, harik eta autonomia-erkidegoko organo eskudunak isurketei buruzko datua inskribatzen duen arte.

2. Aire-operadoreak ezingo ditu eskualdatu isurketa-eskubideak 36 ter artikuluan 2. eta 3. apartatuan aurreikusitako kasuetan, harik eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak isurketei buruzko datua inskribatzen duen arte.

27. artikulua. *Isurketa-eskubideak ezabatzea eta entregatzea.*

1. Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak behar diren neurriak hartuko ditu, titularrak eskatuta noiznahi ezabatu daitezten isurketa-eskubideak.

2. Urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen, instalazioen titularrak eta aire-operadoreek isurketa-eskubideen kantzitate jakin bat entregatu beharko dute, 23. eta 36 ter artikuluetan xedatutakoaren arabera isurketa egiaztatuei buruz inskribatutako datuaren baliokidea.

Entrega horrek eragingo du eskubideak transferitzea instalazioaren titularraren edo aire-operadorearen hartzekoen kontutik, eta eskubideen entrega-tauletan eta betetze-egoeraren tauletan jasoko da.

3. Ez da izango isurketa-eskubideak entregatzeko betebeharririk, baldin eta egiaztatzen bada isurketok atzitu direla, haiek behin betiko biltegitratzeko instalazio batera eraman direla eta instalazioak indarrean duela baimena, betiere karbono-dioxidoaren biltegitratze geologikoari buruz indarrean den legeriarekin bat.

4. 2. apartatuan aurreikusitako betebeharrak betetzeko, instalazio finkoen titularrak eta isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean sartutako aire-operadoreek ezin izango dituzte entregatu Batasuneko estatu batek emaniko isurketa-eskubideak, baldin eta harekiko betebeharrak iraungi egingo badira instalazio finkoen titularrentzat eta aire-operadoreentzat, estatu horrek Europar Batasunaren Tratatuaren 50. artikuluan aurreikusitakoaren arabera Batasunetik erretiratuko dela jakinarazi izanaren ondorioz.

28. artikulua. *Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorraren eta administratzaile zentralaren arteko harremana.*

Europar Batasuneko Erregistroa kudeatzeko Europako Batzordearen agindua jaso duen administratzaile zentralak irregulartasunak detektatzen baditu isurketa-eskubideak transferitzeko eragiketaren batean, eta hala jakinarazten badio Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari, eten egingo da, kautelaz, eragiketaren inskripzioa, bai eta isurketa-eskubide horiek tartean diren beste edozein eragiketa ere, harik eta hautemandako irregulartasunak konpondu arte».

Hogeita bost. Honela geratzen da idatzita 29. artikulua:

«29. artikulua. *Instalazio finkoetarako arau-haustek tipifikatzea.*

1. Lege honen ondorioetarako, eta autonomia-erkidegoko legerian eta Europar Batasuneko araudian xedatutakoa kontuan hartuta, arau-hauste administratiboak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezke, eta horrek ez du eragotziko, edonola ere, erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak sorraraztea.

2. Arau-hauste administratibo oso astuntzat hartzen dira:

1.a Berotegi-efektuko gasak isurtzeko nahitaezko baimenik gabe aritzea.

2.a Ez betetzea instalazioaren izaera, funtzionamendua edo tamaina aldatu izanari buruz informatzeko betebeharra, 6. artikuluan ezarria, baldin eta aldaketa horrek isurketei buruzko datuetan aldaketa nabarmenak eragiten baditu edo 4.2.d) artikuluan aurreikusitako jarraipen-betebeharrak betetzeko aplikatu beharreko metodologian aldaketak egitea badakar.

3.a Ez aurkeztea 22.1 artikuluan eskatutako urteko txosten egiaztatua, isurketei buruzkoa.

4.a 19.3 artikulua eskatzen duen informazioa nahita ezkutatzea edo aldatzea, edo ez betetzea instalazioan esleitutako eskubideen bolumena zehazteko orduan eragina izan dezaketen aldaketak egin direla 6. artikulua babesean jakinarazteko betebeharra.

5.a Ez betetzea 27.2 artikuluan eskatzen den eskubideak entregatzeko betebeharra, edo, isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenetik kanpo dauden instalazioen kasuan, ez betetzea erregelamendu bidez zehaztutako eta isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean parte hartzeagatik aurreikusitako arintze-neurri baliokidea.

6.a Egiaztatzaileari instalazioetara sartzeari galaraztea, lege honen IV. eranskinak eta hura garatzeko araudiak horretarako ahalmena ematen dioten kasuetan.

7.a Ez ematea egiaztapen-prozedurarako behar den informazioa.

8.a Ez aurkeztea jarduera-mailari buruz 22.2 artikuluan eskatutako txosten egiaztatua.

9.a Ez aurkeztea jarraipen-plan metodologikoaren aldaketa lege honen erregelamendu-garapenean aurreikusitakoaren arabera, baldin eta aldaketa horrek eragina badu esleitutako eskubideen bolumena zehaztean.

10.a Ez betetzea neurritz gain transferituriko doako eskubideak itzultzeko betebeharra itzulketa agintzen duen ebazpena irmoa denean.

3. Arau-hauste administratibo astuntzat hartzen dira:

1.a Nahita ezkutatzea 5. eta 6. artikuluetan eskaturiko informazioa.

2.a Ez betetzea titularraren nortasun- edo egoitza-aldaketen informazioa emateko betebeharra, 6. artikuluan ezarria.

3.a Ez betetzea isurketen jarraipena egiteko baimenean ezarritako baldintzak ez-betetze horrek aldaketak eragiten dituen isurketei buruzko datuetan.

4.a Ez betetzea isurketei buruzko urteko txosten egiaztatuak erregulatzen dituzten arauak, baldin eta horrek isurketei buruzko datuak aldatzea badakar.

5.a Ez betetzea egiaztatutako jarduera-mailari buruzko txostenaren arau erregulatzaileak, baldin eta horrek jarduera-mailen datuak aldatzea badakar.

6.a Ez aurkeztea jarraipen-plan metodologikoaren aldaketa lege honen erregelamendu-garapenean aurreikusitakoaren arabera, baldin eta garrantzitsutzat jotzen bada aldaketa hori Europar Batasuneko araudiaren arabera eta ez badu eraginik esleitutako eskubideen bolumena zehaztean.

4. Arau-hauste administratibo arintzat hartzen dira:

1.a Ez betetzea isurketen jarraipena egiteko baimenean ezarritako baldintzak, baldin eta ez-betetze horrek ez badu eragiten aldaketarik isurketei buruzko datuetan.

2.a Ez betetzea isurketei buruzko urteko txosten egiaztatuak erregulatzen dituzten arauak, baldin eta horrek ez badakar isurketei buruzko datuak aldatzea.

3.a Ez betetzea egiaztatutako jarduera-mailari buruzko txostenaren arau erregulatzaileak, horrek ez badakar jarduera-mailen datuak aldatzea.

4.a Ez aurkeztea jarraipen-plan metodologikoaren aldaketa lege honen erregelamendu-garapenean aurreikusitakoaren arabera, aldaketa hori ez bada garrantzitsutzat jotzen Europar Batasuneko araudiaren arabera.

5.a Ez betetzea lege honetan ezarritako beste zernahi betebeharrak, ez-betetze hori ez bada tipifikatu arau-hauste administratibo oso astuntzat edo astuntzat aurreko apartatuetan».

Hogeita sei. Honela geratzen da idatzita 29 bis artikulua:

«29 bis artikulua. *Abiaziorako arau-hausteen tipifikazioa.*

1. Lege honen ondorioetarako, eta Europar Batasuneko araudian xedatutakoa kontuan hartuta, abiazioaren arloko arau-hauste administratiboak astunak, oso astunak eta arinak izan daitezke, eta horrek ez du eragotziko, edonola ere, erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak sorraraztea.

2. Arau-hauste administratibo oso astuntzat hartzen dira:

1.a Ez aurkeztea 36 bis artikuluan 1. apartatuan eskatutako urteko txosten egiaztatua.

2.a Nahita ezkutatzea 38. eta 40. artikuluetan eskaturiko informazioa.

3.a Ez betetzea 27.2 artikuluan eskatzen den eskubideak entregatzeko betebeharra.

4.a Ez ematea egiaztapen-prozedurarako behar den informazioa.

5.a Ez betetzea isurketen jarraipen-plana aurkezteko betebeharra.

3. Arau-hauste administratibo astuntzat hartzen dira:

1.a Nahita ezkutatzea edo aldatzea 36. artikuluan eskatutako informazioa.

2.a Ez betetzea jarraipen-planean isurketen jarraipena egiteko ezarritako baldintzak, baldin eta ez-betetze horrek aldaketak badakartza isurketen datuetan.

3.a Ez betetzea urteko txosten egiaztatuak erregulatzen dituzten arauak, baldin eta horrek isurketei buruzko datuak aldatzea badakar.

4. Arau-hauste administratibo arintzat hartzen dira:

1.a Ez betetzea isurketen jarraipena egiteko jarraipen-planean ezarritako baldintzak, baldin eta ez-betetze horrek ez badakar aldaketarik isurketei buruzko datuetan.

2.a Ez betetzea urteko txosten egiaztatuak erregulatzen dituzten arauak, horrek ez badakar isurketei buruzko datuak aldatzea.

3.a Ez betetzea lege honetan ezarritako beste zernahi betebeharrak, ez bada tipifikatu hori arau-hauste administratibo oso astuntzat edo astuntzat aurreko apartatuetan».

Hogeita zazpi. e) letra gaineratzen zaio 32. artikuluren 1. apartatuari, eta honela geratzen da idatzita:

«e) Jarduera errearen mailaren eta 22.2 artikuluren arabera jakinarazitakoaren arteko aldea».

Hogeita zortzi. Honela geratzen da idatzita 34. artikulua:

«34. artikulua. *Behin-behineko neurriak.*

Arau-hauste oso astun edo astun bategatik zehapen-prozedura bat hasi bada, eta beharrezkoa bada ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko, zehatzeko eskumena duen organoak instalazio finkoetarako behin-behineko neurri hauetako bat edo batzuk erabaki ahal izango ditu:

- a) Instalazioak aldi baterako ixtea, partzialki edo guztiz, arau-hauste oso astunengatik abiarazitako prozedurak direnean bakarrik, betiere 32.4 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.
- b) Aparatuak edo ekipamenduak zigilatzea.
- c) Aldi baterako etetea berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena.
- d) Europar Batasuneko Erregistroko kontuetaarako sarbidea etetea.
- e) Aitortuta zeukan isurketa-eskubideen doako esleipenaren transferentzia etetea.

Aire-operadoreetarako ere adostu ahalko dira d) eta e) letretan aurreikusitako behin-behineko neurriak, arau-hauste oso astun edo astun baten ondorioz hasitako zehapen-prozeduretan».

Hogeita bederatzia. Honela geratzen da idatzita 35. artikulua:

«35. artikulua. *Zehatzeko ahala.*

1. Instalazio finkoei dagokienez, autonomia-erkidegoei dagokie zehatzeko ahala baliatzea, 29.2 artikuluko 4., 8., 9. eta 10. zenbakietan, 29.3 artikuluko 5. eta 6. zenbakietan eta 29.4 artikuluko 3. eta 4. zenbakietan aurreikusitako arau-hausteen kasuan izan ezik, horietan Estatuko Administrazio Orokorra baita zehatzeko ahala.

2. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzako titularrak baliatuko du aire-operadoreen gaineko zehapen-ahala, aurrez Aire Segurtasuneko Estatu Agentziak txostena egin ondoren».

Hogeita hamar. Honela geratzen da idatzita 35 bis artikuluren 3. apartatua:

«3. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzako titularrak emango du zehapen-prozeduraren ebazpena Estatuko Administrazio Orokorren eskumenari buruzko 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, 29.2.4. artikuluan tipifikatutako arau-haustearen kasuan izan ezik, horien gainean Ministro Kontseiluak emango baitu ebazpena, Estatuko Abokatutzak txostena egin ondoren».

Hogeita hamaika. Honela geratzen da idatzita IX. kapitulua:

«IX. KAPITULUA

Abiazioa

36. artikulua. *Jarraipen-planak.*

1. Aireko operadoreek jarraipen-plan bat eduki beharko dute, eta bertan neurriak ezarriko dira urteko isurketei buruzko datuen eta kilometroko garraiatutako tonei buruzko datuen jarraipena eta jakinarazpena egiteko.

2. Lehenengo jakinarazpen-aldia hasi baino lau hilabete lehenago gutxienez, aire-operadoreek jarraipen-planak aurkeztu beharko dizkiote Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari.

Kilometroko garraiatutako tonei buruzko datuen jarraipen-aldia hau izango da: salerosketa-epe bakoitza hasi baino hogeita lau hilabete lehenago amaitzen den urte naturala.

3. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari dagokio aire-operadoreek jakinarazpen-aldia hasi aurretik isurketei eta kilometroko garraiatutako tonei buruz aurkeztutako datuen jarraipen-planak onartzea. Europar Batasuneko araudian eta lege honen erregelamendu-garapenetan ezarritako irizpideekin bat etorri onartu beharko ditu, eta Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak txostena egin beharko du aurrez. Plana aurkezten denetik bi hilabete igaro baino lehen eman beharko du txostena Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak onartu diren jarraipen-planen berri emango dio Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeari.

4. Aire-operadoreak aldian-aldian berrikusi beharko du onetsitako jarraipen-plana, eta, betiere, salerosketa-aldi bakoitza hasi aurretik.

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioan aurkeztu beharko da jarraipen-planari eginiko zernahi aldaketa, txostena egin dezan eta, ondoren, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak onetsi dezan. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, uste badu aurkeztutako planaren aldaketa ez dela handia Europar Batasunaren araudiari dagokionez, eta ez duela onespenez behar, horren berri emango dio aire-operadoreari. Aire-operadoreak jarraipen-planaren aldaketa guztien erregistro bat izango du, Europar Batasunaren araudiak zehazten duenari jarraikiz.

5. Isurketen jarraipen-planak azkendu egingo dira kasu hauetan:

a) Hartzekodunen konkurtsoan likidazio-fasea hasten denean, pertsona juridikoa desegitea lehenago erabaki ez bada, edo nortasun juridikoa azkentzen denean.

b) Behin betiko galtzen direnean jarduteko behar diren ziurtagiriak edo lizentziak.

«36 bis artikulua. *Aire-operadoreen isurketen jakinarazpena.*

1. Aire-operadoreak aurreko urteko isurketen datuei buruzko txosten egiaztatua bidali beharko du Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministeriora, otsailaren 28a baino lehen. Txosten hori jarraipen-planaren eskatutakora egokituko da, 36. artikulua eta III. eranskineko B zatiak xedatutakoaren arabera.

Isurketen jakinarazpenari eta jarraipenari buruzko Europar Batasunaren araudiak eta, hala badagokio, lege hau garatzekoak zehaztuko dute isurketen txosten egiaztatuaren gutxieneko edukia.

Txosten hori IV. eranskinean eta Europar Batasunaren egiaztapenari eta akreditazioari buruzko araudian xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da, eta, hala badagokio, lege hau garatzeko araudiaren arabera ere bai. Klima Aldaketari

buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeak, aurrez, nahitaezko txostena egingo du araudi horri buruz.

Jakinarazpenaren eta jarraipenaren arloko garapen-araudian, baldintzak jarri ahal izango dira sistema automatizatuen eta datuak trukatzeko formatuen erabilerari buruz, jarraipen-planaren komunikazioa harmonizatzeko, eta isurketa-datuen gaineko urteko txostenari buruz eta titularraren, egiaztatzailearen eta agintaritza eskudunen arteko egiaztapen-jardueri buruz.

2. I. eranskinean aipatutako aire-operadoreek, 2009ko otsailaren 1aren ondoren hasten badira I. eranskinean jasotako abiazio-jardueretako batean, Europar Batasunaren araudian isurketen jarraipenari eta jakinarazpenari buruz aurreikusitako datu-hutsuneei buruzko xedapenak baliatuz egingo dute jardueraren lehen urteko isurketen gaineko txostena.

Apartatu honetan aurreikusitako betebeharrak 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren isurketei aplikatuko zaizkie.

3. Europar Batasunaren araudi aplikagarrian ezarritako irizpideen arabera –eta, hala badagokio, lege honen erregelamendu-garapenen arabera– isurtzaile txikitat hartzen diren aire-operadoreek araudi horretako jarraipen- eta jakinarazpen-prozedura sinplifikatuak baliatu ahal izango dituzte.

Aire-operadoreentzat ere prozedura sinplifikatuak aplikatu ahal izango dira, baldin eta isurtzaile txikienezko tresnak zehatzagoak ez badira prozedura sinplifikatu horiek baino Europar Batasunaren araudian aurreikusitako kasuetan.

4. I. eranskineko koadroan jasotako abiazio-jardueraren definizioaren arabera, aire-operadoreak, lege honen aplikazio-eremuko abiazio-jarduerak egiteari uzten dionean, jakinarazpen bat helarazi beharko dio Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari, horren berri emateko. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak hilabeteko epean erantzungo du, esanez ez duela eragozpenik, edo, halakorik badu, zer eragozpen dituen zehaztuz.

I. eranskineko 6. apartatuan aipaturiko «Aireontzi-operadoreen eta haiei dagokien kudeaketaz arduratzen diren Europar Batasuneko estatuen zerrendan» Espainiari esleituta agertzen diren operadore berriek, ez badute lege honen aplikazio-eremuan sartutako jarduerarik, aurreko apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorri jardungo dute.

5. Sekretu profesionalak babestutako informazioa ezingo zaio jakinarazi ezin pertsona edo agintariri, nola eta ez den bestelakorik zehazten lege- edo erregelamendu-xedapenen batean.

36 ter artikulua. *Aire-operadoreen aurreko urteko isurketei buruzko txosten egiaztatuaren balioespena.*

1. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak, aldeko txostena egiten badu aire-operadore batek isurketen datuei buruz aurkeztutako txosten egiaztatuari dagokionez, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari jakinaraziko dio, hark aurreko urteko isurketen gaineko datua inskriba dezan martxoaren 31 baino lehen Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean, horretarako egokitzen den isurketa egiaztatuen taulan.

2. Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak, txosten egiaztatuarekin bat ez badator, aire-operadoreari jakinaraziko dio desadostasunak daudela, eta proposamen bat helaraziko dio desadostasun horiek konpontzeko, txostena ontzat jo ahal izateko eta, hala badagokio, isurketen zenbatespena egiteko. Aire-operadorearen alegazioak aztertu ondotik, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak aire-operadorearen isurketei buruzko datua ebatziko du, eta erregistroan horretarako egokitu den isurketa egiaztatuen taulan inskribatzeko eskatuko dio Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari.

3. Aire-operadoreak ez badu bidaltzen txosten egiaztatua 36 bis artikuluan ezarritako epean, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako

Ministerioak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eskatuta, isurketen zenbatespena egingo du, eta Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorrean horretarako egokitu den isurketa egiaztatuen taulan inskribatuko du aire-operadorearen isurketei buruzko datua.

4. 2. eta 3. apartatuetakoa kasuetan, eskatu beharreko metodologiaren arabera kalkulatu da isurketei buruzko datua.

Abiazio-jardueren isurketen datua kalkulatzeko, aplikatzekoak izango dira aire-operadoreak egindako jardueren gaineko isurketen jarraipenari eta jakinarazpenari buruz Europar Batasunaren araudian aurreikusitako datu-hutsuneei buruzko xedapenak.

5. Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeak eskatu ahal izango du artikulu honetan aurreikusitako eginkizunak betetzeko eskumena duten agintariek eman diezaiotela haien garapenaren berri.

37. artikulua. *Abiazio-sektorerako eskubideen guztizko kantitatea.*

Hurrengo artikuluetan aurreikusitakoaren arabera esleituko zaizkie salerosketa-aldi bakoitzeko isurketa-eskubideak aire-operadoreei.

Europako Batzordeak zehaztuko du Europar Batasunean abiazio-sektorerako isurketa-eskubideen guztizko kantitatea, Batasunaren araudiak dioenari jarraikiz.

38. artikulua. *Aire-operadoreei isurketa-eskubideak esleitzea.*

1. Aire-operadore bakoitzak doako isurketa-eskubideak esleitzea eskatu ahal izango du 13. artikuluan definitutako salerosketa-aldi bakoitzerako, Europar Batasunaren araudian ezarritakoari jarraikiz.

2. Eskaera hori Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioan aurkeztuko da.

Erregelamenduz zehaztuko dira salerosketa-aldi bakoitzerako eskabidea aurkezteko epea, haren edukia eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskaera horretan, I. eranskinean zerrendatzen diren eta salerosketa-aldi bat esleitzeko jarraipen-urtean aire-operadore horrek egin dituen abiazio-jardueren dagokienez egiaztatutako kilometroko tonen datuak jasoko dira.

Aurreko lerrokadaren ondorioetarako, salerosketa-aldia hasi baino hogeita lau hilabete lehenago amaitzen den urte naturala izango da salerosketa-aldia esleitzeko jarraipen-urtea.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari igorriko dizkio jasotako esleipen-eskaerak, eta azken horrek hilabeteko epean egin ahalko du eskaera horiei buruzko txostena, eskaera jaso ondotik.

3. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Europako Batzordeari bidaliko dizkio jasotako esleipen-eskaerak, eta, haiekin batera, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak emandako txostenak, halakorik badago, Europar Batasunaren araudian ezarritakoaren arabera.

4. Europako Batzordeak Europar Batasunaren araudiarekin bat etorriz salerosketa-aldi bakoitza hasi baino hamabost hilabete lehenago gutxienez zehazten dituen parametroak hartuko dira oinarri gisa aire-operadoreei esleitzeko prozesuan. Hona hemen parametrook:

a) Salerosketa-aldi horretarako esleituko diren isurketa-eskubideen guztizko kantitatea.

b) Salerosketa-aldi horretan enkantean jarri beharreko isurketa-eskubideen kantitatea.

c) Erreserba bereziko isurketa-eskubideen kantitatea, salerosketa-aldi horretan aire-operadoreentzat izango dena.

d) Salerosketa-aldi horretan doan esleitu behar diren isurketa-eskubideen kantitatea, zeina a) letran aipatutako erabakia hartu den isurketa-eskubideen guztizko kantitate b) eta c) letratan aurreikusitako isurketa-eskubideen kantitatea kendutakoa baita, eta

e) 2. apartatuaren arabera esleipen-eskaera aurkeztu duten aire-operadoreei isurketa-eskubideak doan esleitzeko erabiliko den erreferentzia-balioa.

5. Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez esleituko dira isurketa-eskubideak, jendaurreko informazioaren izapidea egin eta gero, Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeari kontsulta egin ondotik eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak hala proposatuta. Hiru hilabeteko epean hartu eta argitaratu beharko da erabaki hori, 4. apartatuan aipatzen den Europako Batzordearen erabakia hartzen den egunetik zenbatzen hasita.

6. Honako alderdi hauek zehaztuko dira Ministro Kontseiluak isurketa-eskubideak esleitzeari buruz hartutako erabakian:

a) Esleipena eskatu duen aire-operadore bakoitzari dena delako salerosketa-aldirako esleitutako eskubideen guztizkoa. Kantitate hori zehazteko, 4. apartatuko e) letran adierazitako erreferentzia-balioarekin biderkatuko dira eskabidean ageri diren egiaztatutako kilometroko tonak.

b) Aire-operadore bakoitzari urte bakoitzerako esleitutako isurketa-eskubideak. Honela zehaztuko dira: dagokion salerosketa-aldirako esleitutako isurketa-eskubideen guztizkoa, a) letraren arabera kalkulatu, aire-operadore hori I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintza-jarduera bat egiten ari den aldiko urte kopuruarekin zatituta.

Isurketa-eskubideak esleituta dauzkaten operadoreen zerrendan sartzen ez diren eskatzaileek ezetsizat jo beharko dute eskaera.

7. Esleipen-erabakia Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoari jakinaraziko zaio, hartzen denetik hamar egun igaro baino lehen.

8. Aire-operadore bakoitzari esleitutako isurketa-eskubideen ebazpenak herritarren eskura egongo dira, ingurumenaren arloko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzen duten arauetan aurreikusitako baldintzetan eta mugekin.

39. artikulua. *Aire-operadore jakin batzuentzako erreserba berezia.*

1. 13. artikuluan ezarritako salerosketa-aldietarako Europar Batasuneko eskalako aire-operadoreei esleitu beharreko isurketa-eskubideen kantitatearen ehuneko hiru erreserba berezi batera bideratuko da, honako aire-operadore hauentzat:

a) Salerosketa-aldi bat esleitzeko jarraipen-urtea igaro ondoren, I. eranskinean jasotako abiazio-jardueretako bat garatzen hasten direnak.

b) Salerosketa-aldi bat esleitzeko jarraipen-urtearen eta salerosketa-aldi horren bigarren urte naturalaren artean kilometroko tona kopuruari buruzko datuak batez beste urtean ehuneko hemezortzi baino gehiago handitzen zaizkien operadoreak.

2. Aurreko apartatuan deskribatutako jarduerak ez dira izango, osorik edo zati batean, beste aire-operadore batek aurretik egindako abiazio-jarduera baten jarraipena.

3. Erreserba berezia Europar Batasunaren araudiaren arabera kudeatuko da, eta, hala badagokio, lege hau garatzeko araudiaren arabera.

40. artikulua. *Zenbait aire-operadoreentzako esleipena eskatzea erreserba bereziari.*

1. Aurreko artikuluan ezarritako irizpideak betetzen dituzten aire-operadoreek erreserba bereziko isurketa-eskubideen doako esleipena eskatu ahal izango dute. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Klima Aldaketaren Espainiako Bulegora bidaliko dira esleipen-eskaerak, formatu elektronikoa, dagokien salerosketa-aldiaren hirugarren urteko ekainaren 30a baino lehen, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) I. eranskinean zerrendatutako abiazio-jarduerei dagokienez, aire-operadoreak eskaerei dagokien salerosketa-aldiko bigarren urtean eginiko abiazio-jardueren kilometroko tonei buruzko datuak ematea, III. eta IV. eranskinetako B zatiaren arabera egiaztatuta.

b) 39. artikulua arabera isurketa-eskubideak lortzeko irizpideak betetzen direla egiaztatzen duten frogak aurkeztea, eta

c) 39.1 artikulua b) letran aipatutako aire-operadoreen kasuan, honako hauek adieraztea:

1. 13. artikuluan aurreikusitako salerosketa-aldi bat esleitzeko jarraipen-urtearen eta aldi horretako bigarren urte naturalaren artean aire-operadoreak kilometroko egindako tonen ehuneko gehikuntza.

2. 13. artikuluan aurreikusitako salerosketa-aldi bat esleitzeko jarraipen-urtearen eta aldi horretako bigarren urte naturalaren artean aire-operadoreak kilometroko egindako tonen hazkunde absolutua.

3. 39.1 artikuluko b) letran adierazitako ehunekoa gainditzen duen kilometro-tonen hazkunde absolutua, 13. artikuluan aurreikusitako salerosketa-aldi bat esleitzeko jarraipen-urtearen eta aldi horretako bigarren urte naturalaren artean aire-operadoreak izanikoa.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioari igorriko dizkio jasotako esleipen-eskaerak, eta hark txosten bat prestatu beharko du, operadoreek erreserba bereziaren esleipena eskatzeko irizpideak betetzen ote dituzten azaltzen duena, eskaera jaso eta hiru hilabeteren barruan.

2. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, dagokion salerosketa-aldiaren hirugarren urteko abenduaren 31 baino lehen, erreserba bereziaren esleipena egiteko jaso dituen eskaerak bidaliko dizkio Europako Batzordeari, 39. artikuluko irizpideak betetzeari buruzko txostenarekin batera.

41. artikulua. *Erreserba berezitik eskubideak esleitzeko akordioa.*

1. Erreserba bereziko isurketa-eskubideak esleitzeko ebazpena Ministro Kontseiluaren erabaki baten bidez hartuko da, jendaurreko informazioaren izapidea egin eta gero, Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeari kontsulta egin ondotik eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak hala proposatuta.

2. Honako alderdi hauek zehaztuko dira Ministro Kontseiluak isurketa-eskubideak esleitzeari buruz hartutako erabakian:

a) Aire-operadoreei erreserba bereziko zenbat isurketa-eskubide esleitu kalkulatzeko –baldin eta eskaera 40.2 artikulua arabera aurkeztu bazaio Europako Batzordeari–, honako balio hauetakoren batekin biderkatuko da Europako

Batzordeak dagokion salerosketa-aldiaren laugarren urteko ekainaren 30a baino lehen ezartzen duen erreferentzia-balioa:

1. 39.1 artikuluko a) letra aplikagarri zaien aire-operadoreen kasuan, 40. artikulua araberako Batzordeari aurkeztutako eskabideetan sartutako kilometroko tonak;

2. 39.1 artikuluko b) letra aplikagarri zaien aire-operadoreen kasuan, kilometroko tonen hazkunde absolutua, 40. artikuluan jasotakoaren araberako Batzordeari aurkeztutako eskabideetan adierazi zaiona, ehuneko hemezortitik gorakoa denean; eta

b) Aire-operadore bakoitzari urte bakoitzerako esleitzen zaizkion isurketa-eskubideak; kalkulu hori egiteko, zatiketa egingo da a) letraren araberako isurketa-eskubideen esleipenaren eta esleipenari dagokion salerosketa-aldiko gainerako urte natural osoen kopuruaren artean.

3. Erreserba bereziaren esleipena jasotzen duten operadoreei dagokienez, aurreko apartatuko a) letran ezarritako erreferentzia-balioa zehazten denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean hartu eta argitaratuko da erabakia.

4. 39.1 artikuluko b) letrari jarraikiz, aire-operadore bakoitzari ez zaizkio esleituko 1.000.000 isurketa-eskubide baino gehiago.

5. Esleitu ez diren erreserba bereziko isurketa-eskubideak 14. artikuluan xedatutakoaren araberako jarriko dira enkantean».

Hogeita hamabi. Aldatu egiten da lehen xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Lehen xedapen gehigarria. *Berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena ingurumen-baimen integratuan biltzea.*

Berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimenaren edukia abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginean araututako ingurumen-baimen integratuan sartu ahal izango da, autonomia-erkidegoek zehazturiko baldintzetan».

Hogeita hamahiru. Aldatu egiten da bigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Bigarren xedapen gehigarria. *Kyotoko Protokoloaren proiektuetan oinarritutako mekanismoen agintaritza nazionala.*

1. Batzorde bat sortzen da, Kyotoko Protokoloko proiektuetan oinarritutako mekanismoetarako izendaturiko agintaritza nazional gisa jardungo duena. Eginkizun hauek izango ditu:

a) Garapen garbiko eta baterako aplikazioko proiektuetan borondatez parte hartzeari buruzko nahitaezko txostenak egitea, indarrean dagoen nazioarteko eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoari jarraikiz.

b) Garapen garbiko eta baterako aplikazioko proiektuak sustatzeko eta garatzeko beste herrialde batzuek izendaturiko agintaritza nazionalarekiko harremanean Espainiaren puntu fokal gisa jardutea.

c) Aurreko urtean egindako jardueri buruzko urteko txostena aurkeztea Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeari eta Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeari.

2. Izendaturiko agintaritza nazionalak autonomia-erkidegoekin hitzarmenak sinatzea sustatuko du, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru

Konbentzioaren Kyotoko Protokoloaren proiektuetan oinarritutako mekanismoen garapena sustatzeko eta errazteko.

3. Batzordea Gobernuko Presidentetzako kide batek eta zuzendariorde nagusiaren maila duten bi kidek osatuko dute, eta atzerri-gaietan, Europar Batasunean, lankidetzan, ekonomian, industrian, turismoan, merkataritzan, ingurumenean eta energian eskumena duten ministerioetako titularrek eta autonomia-erkidego eskudunetako ordezkari batek izendatuko dituzte, haiek adosten duten moduan.

Ingurumeneko Estatu Idazkaritzako titularra izango da batzordeko presidentea.

Batzordeko idazkaria, berriz, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoko funtzionario bat izango da. Funtzionario horrek, batzordekidea ez bada, hitza izango du bileretan, baina ez botorik.

4. Batzordea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko II. kapituluaren 3. atalean xedatutakoari jarraikiz arautuko da».

Hogeita hamalau. Aldatu egiten da hirugarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Hirugarren xedapen gehigarria. *Garapen garbiko eta baterako aplikazioko proiektuak.*

1. Garapen garbiko eta baterako aplikazioko proiektuen sustatzaileek, Espainiako Agintaritza Nazionalaren txostena izan behar badute nazioarteko eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoari jarraikiz, proiektuaren kopia bat eta deskribapen teknikoa aurkeztuko dituzte eskabidearekin batera.

2. Izendaturiko agintaritza nazionalak gehienez ere bi hilabeteko epean aztertu beharko du proiektua, eta txostena prestatu beharko du nazioarteko araudian eta Europar Batasuneko araudian ezarritako irizpide teknikoetan eta ingurumen-irizpideetan oinarrituta (bereziki, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko Aldeen Konferentziaren 16 eta 17/CP.7 erabakietan ezarritakoetan oinarrituta).

3. Espainiak bere gain hartutako betebeharrak kuantifikatuak betetzeko proiektuetan oinarritutako mekanismoak erabiltzeak lehentasuna emango die energia-efizientziaren eta energia berriztagarrien arloko proiektuei.

4. Proiektuetan oinarritutako mekanismoen garapena errazteko, autonomia-erkidegoek agintaritza nazionalarekin lankidetzan arituko diren zentroak sortu ahal izango dituzte honako eremu hauetan:

a) Tokiko eragile ekonomikoek eskura dituzten alternatiben berri ematea, kostuak eta onurak balora ditzaten.

b) Merkatuko parte-hartzaile potentzialekin lan egitea, haien gaitasuna handitzeko eta Kyotoko Protokoloaren proiektuetan oinarritutako mekanismoen modalitateen ezagutza errazteko.

c) Proiektuetan oinarritutako mekanismoek buruzko materiala editatzea eta proiektuen sustatzaileentzako harremanetarako gune izatea.

d) Jakintza-trukea sustatzea eskualdeen artean.

e) Europar Batasunaren, Nazio Batuen edo beste erakunde aldean zintzen programak ezagutzea eta aplikatzea.

f) Eragile ekonomikoek metodologian berrikuntza definitu eta garatu dezaten erraztea.

g) Enpresen interesak erraztea eta koordinatzea proiektuetan oinarritutako mekanismo baten momentu guztietan.

h) Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea arlo horretan.

i) Autonomia-erkidegoaren lurralde-eremuan kokatutako enpresek aurkeztutako proiektuei buruzko aurretiazko balorazioa egitea, eta, hala badagokio, aipatutako agintaritzaren nazionalari proposatzea, bigarren xedapen gehigarriaren 1.a) apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako».

Hogeita hamabost. Aldatu egiten da laugarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Laugarren xedapen gehigarria. *Tamaina txikiko instalazioak baztertzea.*

1. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren aldeko txostena jaso ondoren, erabaki ahal izango du autonomia-erkidego horretako lurraldean dauden eta isurtzaile txikitat hartzen diren edo ospitaleak diren instalazioak baztertzea 2021eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte, baldin eta instalazioen titularrek hala eskatzen badute eta egiaztatzen badute betetzen dituztela apartatu honetan ezartzen diren eskakizunak. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren ondorioetarako, isurtzaile txikitat hartuko dira 19. artikuluan aipatutako esleipen-eskaeraren aurreko hiru urteetako bakoitzerako eta biomasaren isurketak alde batera utzita agintari eskudunari 25.000 tona karbono dioxido baliokide baino gutxiagoko isurketak jakinarazi dizkieten instalazioak, errekuntza-jarduerak egiten dituztenean 35 MW baino potentzia termiko nominal txikiagoa dutenak.

Erregelamendu bidez ezarriko da baztertzeko eskabideak eta egokitzen jotzen den beste edozein alderdi aurkezteko epea, betiere Europar Batasunaren araudiak dioenari jarraikiz.

Baztertzeko eskaera autonomia-erkidegoak izendatzen duen organo eskudunari aurkeztu beharko zaio. Honako baldintza hauek betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Arintze-neurriak aplikatuko direla isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean parte hartzeagatik aurreikusitako isurketa-murrizketaren pareko ekarpena egiteko.

Gobernuak errege-dekretuz zehaztuko du zer arintze-neurri hartuko diren parekotzat aurreko lerrokadaren ondorioetarako.

b) Informazioaren jarraipen- eta jakinarazpen-sistema bat ezarriko dela lege honetan aurreikusitakoaren pareko isurketei buruz.

Horri dagokionez, autonomia-erkidegoko organo eskudunak jarraipen-, jakinarazpen- eta egiaztapen-neurri sinplifikatuak baimendu ahal izango ditu 2008 eta 2012 artean egiaztatutako batez besteko isurketak urtean 5.000 tonatik behera dituzten instalazioentzat.

Halaber, baztertzea aplikatzeko aldiari Europar Batasuneko araubidean sartuta ez dauden instalazioei eskakizun sinplifikatuak betetzea baimenduko die jarraipena, jakinarazpena eta egiaztapena egiteko, 19. artikuluan aipatzen den esleipen-eskaeraren aurreko hiru urteetako isurketak zehazte aldera.

2. Organo eskudunak, gutxienez hiru hilabetez jendaurreko informazioaren izapidea egin ondoren, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministeriora bidaliko du espediente osoa, beranduenik ere dagokion salerosketa-aldia hasi baino hamasei hilabete lehenago, Europako Batzordean izapidetzeko eta 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Europako Batzordeari jakinarazpena egin eta sei hilabeteko epean Batzordeak ez badu jartzen eragozpenik, onartutzat joko da baztertzea.

3. Salbuetsitako instalazioek VIII. kapituluaren aurrekusten diren arau-hausteen eta zehapenen araubidea bete beharko dute, isurketei buruzko informazioaren jarraipena egiteko eta informazioa emateko betebeharrak betetzeari eragiten dioten heinean.

4. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoak ez ditu salbuesten instalazioen titularrak lege honetan ezartzen diren betebeharrak betetzetik, harik eta bazterketa formalizatu arte Europako Batzordearen adostasuna lortu ondoren.

Kasu horretan, iraungitzat joko da berotegi-efektuko gasak isurtzeko baimena, baztertuta egongo den esleipen-aldiaren lehen egunari dagokion datarekin. Baztertutako instalazioak ez du jasoko isurketa-eskubiderik egoera horretan dagoen bitartean.

5. Baztertutako instalazioak ospitaleak ez badira eta 25.000 tona karbono dioxido baliokide edo gehiago isurtzen badituzte urte zibil berean zehar –biomasaren isurketak zenbatu gabe–, edo edozein izanik ere instalazioen tipologia ez bazaizkie aplikatzen instalazio horiei isurketa-murrizketaren ekarpen baliokidea lortu ahal izateko neurriak, atzera erregimenean sartuko dira aipaturiko instalazio horiek.

Isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenean berriz sartzen diren instalazioek erregimen horretan jarraituko dute abian den esleipen-aldia amaitu arte. Isurketa-eskubideen doako esleipena harmonizatzeko Europar Batasuneko arau iragankorrekin bat etorritik, instalazioak esleipena eskatu ahal izango du. Ematen zaizkion eskubide guztiak berrituz sartzen den urtetik aurrera esleitu dira. Instalazio horiei emanako eskubideak kendu egingo dira enkantean jarriko den kantitatetik.

6. Gobernuak isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenetik kanpo utzi ahal izango ditu 19. artikuluan aipatzen den esleipen-eskaeraren aurreko hiru urteetako bakoitzerako 2.500 tona karbono-dioxido baliokide baino gutxiago –biomasaren isurketak zenbatu gabe– isurtzen duten instalazioak, betiere esleipen hori mamitzeko ezartzen denarekin bat etorritik.

7. Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak txosten bat egingo du 2023an, orain arte isurketa gutxiko instalazioak baztertzeko erregimena aplikatu ote den jakiteko. Txosten horren emaitzak ikusita, Gobernuak, erregelamenduz, baztertze-erregimenaren aplikazioa luzatu ahalko du 2026tik aurrera».

Hogeita hamasei. Aldatu egiten da bosgarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Bosgarren xedapen gehigarria. *Isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenari lotuta ez dauden jardueretatik sorturiko berotegi-efektuko gasak murriztea.*

1. Estatuko lurraldean kokatutako proiektuei dagokienez, mekanismo bat eratuko da isurketa-eskubideak edo kredituak jaulkitzeko, isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren mende ez dauden jardueretatik sorturiko berotegi-efektuko gas-isurketak murrizte aldera. Erregelamendu bidez, eta Klima Aldaketari buruzko Politikak Koordinatzeko Batzordeari kontsulta egin ondoren, mekanismo horren baldintza zehatzak ezarriko dira. Europar Batasunak gai horri buruz duen araudira egokituko da aipaturiko mekanismoa, eta indarrean dagoen araudian jarduera horietatik sorturiko isurketak murrizteko beste neurri estrategiko batzuei kalterik egin gabe aplikatuko da.

2. Inola ere ez da baimenduko jaulkipen-eskubideak edo jaulkipen-murrizketak bi aldiz zenbatzen dituzten kredituak jaulkitzea.

3. Era berean, isurketak merkaturatzeko beste sistema batzuk antolatu ahal izango dira Europar Batasuneko erregimenetik kanpo, berotegi-efektuko gasak murrizten laguntzeko erregimenari lotuta ez dauden jardueretan».

Hogeita hamazazpi. Aldatu egiten da seigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Zeharkako kostuen konpentsazioa.*

1. Gobernuak elektrizitatearen prezioetan gehitzen diren eta berotegi-efektuko gasen isurketei egotz dakizkiekeen zeharkako kostu handiak konpentsatzeko

mekanismo bat sortzea ezarriko du Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioarekin, Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioarekin eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioarekin batera. Karbono-ihesak izateko benetako arriskua duten sektoreetako eta azpisektoreetako instalazioek baliatu ahalko dute mekanismo hori.

2. Instalazio bakoitzerako konpentsazioen zenbatekoa ez da izango handiagoa elektrizitate-sorgailuen CO₂ isurketek eragin dituzten kostuak baino, eta eutsi egingo dio instalazioan elektrizitatearen kontsumoa murrizteko pizgarriari, kontsumo efizienteengatik konpentsazioa bermatuz. Kostuak konpentsatzeko, beharrezkoa izango da aplikatzekoak diren estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko arauak betetzea, eta, zehazki, ez dute eragingo barne-merkatuko lehiaren bidegabeko distortsiorik.

3. Europar Batasuneko araudi aplikagarriak –bereziki, estatu-laguntzei dagokien araudiak– horretarako aukera ematen duen neurrian, mekanismo horren onuradun izan ahalko dira dela lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren instalazioak, dela aplikazio-eremu horretan sartzen ez diren baina 1. apartatuan aipatutako zeharkako kostuen eragina izan dezaketen instalazioak.

4. Gobernua saiaturako da Espainiak isurketa-eskubideen enkantetik urtean lortutako diru-sarreraren ehuneko hogeita bosteko zenbatekoa bideratzen, gehienez ere, zeharkako kostuak konpentsatzeko mekanismo horretara. 2021etik aurrera eta urtero, ehuneko hori gainditzen den kasuetan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak txosten bat prestatuko eta argitaratuko dute elkarrekin, zenbateko hori gainditu izanaren arrazoiak justifikatzeko.

Txostenak informazio hau jasoko du gutxienez:

a) Laguntzak jasotzen dituzten kontsumitzaile industrial handientzako elektrizitatearen prezioei buruzko informazioa, erreferentzia-urtekoa; betiere, isilpeko informazioa babesteari buruzko eskakizunak bete beharko dira.

b) Epe ertain eta luzera karbonoaren zeharkako kostuak modu jasangarrian murrizteko beste neurri batzuk behar bezala kontuan hartu ote diren jakiteko informazioa.

5. Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak jendaurrean ipiniko du, erraz eskuratzeko moduan, xedapen honen arabera ematen diren laguntzen zenbateko osoa, sektore eta azpisektore onuradunen arabera banakaturik.

Informazio hori, gainera, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean jasoko da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. eta 20. artikuluekin bat etorritik».

Hogeita hemezortzi. Aldatu egiten da zazpigarren xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Zazpigarren xedapen gehigarria. *Lehia askearen aurkako jardunbideak, kapitalak zuritzearekin edo terrorismoa finantzatzearekin loturikoak edo merkatu-abusuarekin loturikoak.*

1. Ingurumeneko Estatu Idazkaritzak jakinaren ganean ipiniko du Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala, baldin eta enkanteen antolaketarekin loturik dagoen eta lehia defendatzeko legeria urra dezakeen edozein gertaeraren berri izaten badu. Bereziki, jakinarazi beharrekoak izango dira akordio, erabaki edo gomendio kolektiboen zantzu oro, edo lizitatzaileen arteko praktika itundu edo kontzienteki paraleloa den jarduera oro, baldin eta haien xedea bada edo izan badaiteke lehia eragozte, murriztea edo faltsutzea enkante-prozesuan.

2. Era berean, Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoak, Europar Batasuneko Erregistroaren Espainiako alorreko administrazioaren arloko agintaritza eskuduna

den aldetik, iruzurrarekin, kapital-zuriketarekin, terrorismoaren finantzaketarekin, ustelkeriarekin edo beste delitu larri batzuekin zerikusia duen edozein jarduketa susmagarriren berri emango die, atzerapenik gabe, gai horiek ikertzeko eta borrokatzeko agintari eskudunei. Horrekin batera, lankidetzan arituko da Estatuko edo Europako agintaritzak eskudunekin isurketa-eskubideen merkatuen ikuskapenaren alorrean, zentzuzko arrazoiak dituen susmatzeko eragiketarako egiten ari direla merkatu horretan informazio pribilegiatuarekin. Egiteko horretan, Batasunaren araudiak ezarritako koordinazio-mekanismoei jarraituko zaie».

Hogeita hemeretzi. Honela geratzen da idatzita lehenengo xedapen iragankorra:

«Lehenengo xedapen iragankorra. *Entrega-betebeharrak betetzeko erregimen iragankorra 2021eko apirilaren 30era arte.*

1. Instalazioen titularrek, 2013-2020ko salerosketa-aldian 27.2 artikuluan aipaturiko entrega-betebeharrak betetzeko, abiazioari esleitutako isurketa-eskubideez bestelako isurketa-eskubideen kantitate bat entregatu beharko dute, instalazio horrek aurreko urtean egiaztatutako isurketa-datuaren parekoa, beranduenez urte bakoitzeko apirilaren 30ean.

2. 2013-2020ko salerosketa-aldian 27.2 artikuluan aipatutako entrega-betebeharrak betetzeko, aire-operadoreek isurketa-eskubideen kantitate jakin bat entregatu beharko dute, aire-operadore horrek aurreko urtean egiaztatutako isurketa-datuaren parekoa, beranduenez urte bakoitzeko apirilaren 30ean».

Berrogei. Honela geratzen da idatzita bigarren xedapen iragankorra:

«Bigarren xedapen iragankorra. *Nazioarteko kredituak erabiltzea 2013-2020ko salerosketa-aldirako.*

Kyotoko Protokoloaren baterako aplikazioko proiektuen (isurketak murrizteko unitateak, IMU) edo garapen garbiko mekanismoen (isurketen murrizketa ziurtatuak, IMZ) jarduerak sortutako nazioarteko kredituei dagozkien unitateak, 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauaren 11 ter artikuluekin bat etorriz, hautatu ahal izango dira baliozko isurketa-eskubideekin baliatzeko eta trukatzeko, Europar Batasuneko araudian ezarritako muga kuantitatibo eta kualitatiboak gainditzen ez dituzten heinean eta hark zehazten duen datara arte».

Berrogeita bat. Honela geratzen da idatzita hirugarren xedapen iragankorra:

«Hirugarren xedapen iragankorra. *Abiaziorako erregimen iragankorra 2013-2023ko aldian.*

1. 2013ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitarteko urte natural bakoitzean, ez dira aplikatzekoak izango Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimeneko betebeharrak Europako Esparru Ekonomikokoak ez diren herrialdeetako aerodromoak jatorri edo helmuga dituzten hegaldietarako, ez eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 349. artikuluan aipatzen diren eskualde ultraperiferikoetako batean kokatutako aerodromo baten eta Europako Esparru Ekonomikoko beste eskualde baten arteko hegaldietarako ere. Horrek guztiak ez du eragotziko Europar Batasuneko edo Espainiako araudiak betebeharrak gehiago jartzea eta horiek ere bete behar izatea Nazioarteko Abiazio Zibilaren Erakundearen merkatu globaleko tresnari dagokionez.

2. 36 bis.3 artikuluan xedatutakoari dagokionez, aire-operadoreak urtean 3.000 tona baino gutxiagoren isurketak baditu xedapen honen 1. apartatuan deskribaturiko aplikazio-eremuan, jakinarazitako isurketak egiaztatutzat joko dira, baldin eta Europar Batasuneko araudiaren bidez igorle txikientzat onartutako eta Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenari laguntzeko Eurocontrolek bere tresnaren datuekin elikatutako tresnaren bidez zehaztu badira.

3. 2013ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean, aire-operadoreek doako isurketa-eskubideen kantitate bat jasoko dute urtero, zeina murriztuz joango baita, artikuluko honen 1. apartatuan deskribaturiko aplikazio-eremuan Europar Batasunaren isurketa-eskubideen salerosketa-erregimenaren betebeharrak murrizketaren proportzioan.

4. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, instalazio finkoen esleipenari aplikatu beharreko murrizketa-faktore lineal bera aplikatzearen mende egongo da aire-operadoreei doan esleitutako isurketa-eskubideen kantitatea.

5. 2018ko irailaren 1a baino lehen, aire-operadore bakoitzari esleituko zaizkion abiazio-sektoreko isurketa-eskubideen kopurua argitaratuko da, 2017ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2023ko abenduaren 31n amaitzen den aldiko jarduerari dagokienez.

6. 2013ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean, enkantean jarriko da Europar Batasuneko araudiak abiazio-sektorerako zehazten duen isurketa-eskubideen kantitatea.

7. 27.2 artikuluan azaltzen den eskubideak entregatzeko betebeharrak betetzeko, aire-operadoreek isurketa-eskubideen kantitate jakin bat entregatu beharko dute, artikuluko honen lehen apartatuan aipatzen den aplikazio-eremuan sartutako isurketa egiaztatuen kantitatearen parekoa».

Berrogeita bi. Ezabatu egiten dira Berotegi Efektuko Gasak isurtzeko Eskubideen Salerosketa-Erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legearen laugarren xedapen iragankorretik hamalagarren xedapen iragankorrera bitartekoak.

Berrogeita hiru. Aldatu egiten da azken xedapenetako lehena, eta honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-tituluak.*

Lege hau, bigarren xedapen gehigarria izan ezik, Konstituzioaren 149.1 artikuluko 13. eta 23. zenbakietan aurreikusten diren Estatuaren eskumen eskusiboaren babesean ematen da, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan eta ingurumena babesteko oinarriko legeriaren arloan, autonomia-erkidegoek ingurumenaren gaineko legeriaren arloan dituzten betearazpen-eskumenen kalterik gabe.

Aurrekoa gorabehera, Estatuak aire-espazioaren kontrolean eta aire-zirkulazioaren eta -garraioaren arloan duen eskumen eskusiboaren babesean ematen dira abiazioarekin zerikusia duten gaiak; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan aurreikusita dago».

Berrogeita lau. Aldatu egiten da azken xedapenetako bigarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako bigarrena. *Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea.*

Lege honek Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentaraua, 2003ko urriaren 13koa, Europar Erkidegoan berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketarako erregimena ezartzen duena. Zuzentarau hori honako hauek aldatu zuten: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/101/EE Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita 2003/87/EE Zuzentaraua, abiazio-jarduerak berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketarako Europar Erkidegoko erregimenean sartzeko; 2009/29/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko apirilaren 23koa, 2003/87/EE Zuzentaraua aldatzen duena, berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen salerosketari buruzko Europar Erkidegoko erregimena hobetu eta zabaltzeko; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/410 Zuzentaraua, 2018ko martxoaren 14koa, 2003/87/EE Zuzentaraua aldatzen duena, kostuei dagokienez isurketa-murrizketak modu eraginkorrean areagotzeko eta teknologia

hipokarbonikoetan inbertsioak errazteko ((EB) 2018/410 Zuzentarauak partzialki aldatu zuen 2003/87/EE Zuzentaraua); (EB) 2015/1814 Erabakia ere txertatzen du lege honek».

Berrogeita bost. Aldatu egiten da azken xedapenetako hirugarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Azken xedapenetako hirugarrena. *Erregelamendu bidezko garapena.*

1. Gobernuak, bere eskumenen esparruan, lege hau garatzeko behar diren xedapenak emango ditu.

2. Gobernuak, errege-dekretu bidez, lege honen I. eranskina aldatu ahal izango du hegaldi jakin batzuk abiazio-jardueretatik kanpo uzteko, baldin eta Europako Batzordeak 2003/87/EE Zuzentarauaren I. eranskinean zerrendatutako abiazio-jarduerak aldatzen baditu hirugarren herrialde batetik datozen hegaldiak kanpoan uzteko hirugarren herrialde horrek betiere neurriak hartu dituela-eta handik Europar Batasunera datozen hegaldiek klima-aldaketan duten eragina murrizteko».

Berrogeita sei. Kendu egiten da azken xedapenetako hirugarrena.

Berrogeita zazpi. I. eranskinean («Aplikazio-eremuan sartzen diren jardueren eta gasen kategoriak»), aldatu egiten dira 6., 9. eta 13. epigrafeak, eta k) letra gaineratzen da jardueren taulako 29. epigrafean. Honela geratzen dira idatzita:

(...)

«6. Burdinazko metalak (ferroaleazioak, adibidez) ekoiztea edo eraldatzea guztira 20 MW-tik gorako potentzia termiko nominala duten errekontza-unitateak ustiatzen direnean. Eraldaketak barnean hartzen ditu, beste elementu batzuen artean, ijzeteako makinak, birberotzeko makinak, suberatze-labeak, forja, galdaketa eta estaldura- eta desugerketa-unitateak».

(...)

«9. Burdinazkoak ez diren metalak ekoiztea eta eraldatzea (aleazioen ekoizpena, finketa, galdaketako moldekatzea eta abar barne) guztira (erreduktore gisa erabilitako erregaiak barne) 20 MW-tik gorako potentzia termiko nominala duten errekontza-unitateak ustiatzen direnean».

(...)

«13. Zeramikazko produktuak (batez ere, teilak, adreiluak, adreilu erregogorrrak, azulejuak, zeramikazko gres edo portzelanak) labean ekoiztea, egunean 75 tona baino gehiago».

(...)

«29. Abiazioa:

Jatorria edo helmuga tratatua aplikatzen zaion Europar Batasuneko estatu bateko lurraldean dagoen aerodromo batean edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean duten hegaldiak.

Ez dira sartzen jarduera horretan:

(...)

k) 2013ko urtarrilaren 1etik 2030eko abenduaren 31ra arte, puntu honengatik ez balitz jarduera honetan sartuko liratekeen hegaldiak, urtean 1.000 tona baino gutxiagoren isurketak dituen aireontzi ez-komertzialen operadore batek eginak».

Berrogeita zortzi. III. eranskinaren A zatian («Instalazio finkoen isurketen jarraipena eta jakinarazpena»), aldatu egiten da laugarren apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Berotegi-efektuko beste gas batzuen isurketen jarraipen egitea.

Europako Batzordeak kasuan kasuko interesdun guztiekin lankidetzan garatutako eta berotegi-efektuko gas-isurketen jakinarazpenari eta jarraipenari

buruzko Europar Batasunaren araudiaren arabera onetsitako metodo normalizatuak edo onartuak erabiliko dira, 2003ko urriaren 13ko 2003/87/EE Zuzentarauak dioena aplikatuz».

Berrogeita bederatzia. Honela geratzen da idatzita V. eranskina:

«V. ERANSKINA

Lege-xedapenek ukituriko subjektuak

Ukituriko subjektuak	Xedapenak
Instalazio finakoak	4.–8., 13.2, 16.–23 bis eta 29. artikulua. Lehenengo, laugarren eta seigarren xedapen gehigarriak. III. eranskinaren A zatia, eta IV. eranskinaren A zatia.
Aire-operadoreak	29 bis, 31. eta 36.–41. artikulua. III. eranskinaren B zatia, eta IV. eranskinaren B zatia. Hirugarren xedapen iragankorra.
Instalazio finakoak eta aire-operadoreak	1.–3 bis, 9.–1.2, 13.1, 14. eta 15., 24.–28., 30. eta 32.–35 bis artikulua. Bigarren, hirugarren, bosgarren eta zazpigarren xedapen gehigarriak. Lehenengotik bosgarrenera bitarteko azken xedapenak. Lehenengo eta bigarren xedapen iragankorrak. I., II. eta V. eranskinak».

Xedapen iragankor bakarra.

Isurketa-eskubideen doako esleipenari eta 2013-2020ko salerosketa-aldiko sartu berriei dagokienez, Berotegi Efektuko Gasak isurtzeko Eskubideen Salerosketa Erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legearen 2., 16., 17., 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, lege honen artikulua bakarrak aldaketak egin aurrekoa.

Era berean, 2020ko abenduaren 31ra arte izango da aplikatzekoa Berotegi Efektuko Gasak isurtzeko Eskubideen Salerosketa Erregimena arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legearen 4.5 artikulua, lege honen artikulua bakarrak aldaketak sartu aurrekoa, eta egun horretatik aurrera izango ditu ondorioak aipaturiko artikulua bakarraren hamaikagarren apartatuak.

Azken xedapenetako lehena. *Eskumen-tituluak.*

Lege hau, artikulua bakarraren hogeita hamabigarren apartatua izan ezik, Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 23. zenbakietan aurreikusten diren Estatuaren eskumen eskusiboaren babesean ematen da, jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan eta ingurumena babesteko oinarrizko legeriaren arloan, autonomia-erkidegoek ingurumena babestearen arloan babes- eta kudeaketa-arau osagarriak ezartzeko dituzten eskumenen kalterik gabe. Aurrekoa gorabehera, Estatuak aire-espazioaren kontrolean eta aire-zirkulazioaren eta -garraioaren arloan duen eskumen eskusiboaren babesean ematen da artikulua bakarreko hogeita hamargarren apartatua; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan dago aurreikusita.

Azken xedapenetako bigarrena. *Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea.*

Lege honek partzialki ekartzen du Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko martxoaren 14ko (EB) 2018/410 Zuzentaruak, zeinaren bidez 2003/87/EE Zuzentaruak aldatzen baita, kostuei dagokienez isurketa-

murrizketak modu eraginkorrean areagotzeko eta teknologia hipokarbonikoetan inbertsioak erraztekoa, eta, orobat, (EB) 2015/1814 Erabakia ekartzen du.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,
Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2020ko abenduaren 16an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN